

Euskaltzaindiaren
Oroit-Idazkia
1989





Memoria
1989


Real Academia de la Lengua Vasca
Euskaltzaindia















ELKIN ETXARREAN
1989



Euskaltzaindiaren
Oroit-Idazkia
1989

Testu idazketa: Jose Luis Lizundia
Orrazketa eta maketazioa: Jose Antonio Arana Martija eta Ricardo Badiola
Makinatze lana: Begoña Amundarain

© Euskaltzaindia

Elkano, 5. 48011 Bilbo

Fotokonposaketa: Rali, S. A.

Particular de Costa, 12-14. 48010 Bilbo


Inprimategia: Elkar, E. Koop. grafikagintza

Autonomia, 71 - 48012 Bilbo


Legezko Gordailua: B1-910-90

AURKIBIDEA

1. Ekintza Orokorrak	7
1.1. Bilkura eta akademi bilerak	9
1.2. Osoko bilkuretako erabakiak	14
1.3. Batzarre txostenak	15
1.4. Gertakari akademiko eta ekintza ordezkagarri zenbait ..	15
1.5. Euskaltzaindiko Batzordeen organigrama	22
2. IKER Saileko Batzordeak	25
2.1. Hiztegi gintza batzordea	27
2.2. Gramatika batzordea	32
2.3. Dialektologia batzordea	34
2.4. Onomastika batzordea	42
2.5. Literatura batzordea	44
3. JAGON Saila	49
4. Akademi Zerbitzuak	53
4.1. Administralgoa eta ordezkariak	55
4.2. Azkue Biblioteka	56
4.3. Argitarapenak	58
4.4. Itzulpen eta kontsulta zerbitzua	65
4.5. Etsaminak	66
5. Ekonomia	67
5.1. Diruzaintza	69
5.2. 1989.urteko egoera balantzea	70
6. Aurkitegia	71



1. Ekintza Orokorrak



1.1. BILKURA ETA AKADEMI BILERAK

Euskaltzaindiak bere hileroko batzar arruntak 1989. urtean era honetara egin ditu, hots, lau hilabetetakoak, Gipuzkoako Foru Diputazioan; eta besteak: Otsailekoak, Lazkaon (Gipuzkoa); Martxokoak, Bidarten eta Baionan (Lapurdi); Maiatzekoak, Iruran eta Billabonan (Gipuzkoa); Ekainekoak, Gasteizen; Uztailekoak, Gernikan (Bizkaia); Azarokoak, Bilbon eta Abendukoak, Iruñean.

Bestalde, bai Zuzendaritzak eta bai Batzorde orok, mota desberdinetako lan bilkura ugari egin dituzte.

Ohizko bilkurez gain, zenbait mendeurren eta ospakizun ospatu dira, Jardunaldi, batzar ireki eta antzekoak antolatuz, alegia:



Ibon Sarasola Sarrera hitzaldia egiten.

– 27an, Ibon Sarasolaren sarrera hitzaldia egiten da Donostiako Udaltxean. Gertakari honetan hasierako partaide izan dira: Xabier Albistur, hiriko Alkatea eta Jean Haritschelhar, euskaltzainburua. Ibon Sarasolaren hitzaldia "Euskal hitzez" gaiaz izan da, erantzuna, Endrike Knörr euskaltzainak egin diolarik.

– Otsailaren 24 eta 25ean, Gipuzkoako Lazkaon dagoen HABEko Maizpide Ikastegian, Euskaltzaindiaren VI. Barne Jardunaldiek egin dira, 1979tik harrezkero, bi urterik behin egin direnak, herrialdez herrialde. Jardunaldi horietan Akademiaren barne ibilpide, Batzorde berriztatze eta egituratze aritzeko. Lehengo Batzordeez gain, aholku langitza mailan, Erakundeei laguntzeko Batzorde Juridikoa sortu berria da. Jardunaldien amaieran, Ataun albo herrira joan da Euskaltzaindia, Jose Migel Barandiaran euskaltzain osoa beraren etxean omentzera, ehungarren urtea beteko duenean.



Jose Migel Barandiaran euskaltzain osoa eta Jean Haritschelhar euskaltzainburua.

– Apirilaren 1ean, Martxoko hileroko bilkura eta Argitalpen Batzordearena, bezperan, Lapurdiko Bidarte herrian egin ondoren, Baionako Udaletxean, Txomin Peillen euskaltzainaren sarrera egin da. Henri Grenet hiriko auzapezaren eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuaren hasiera mintzoen ondoren, "Euskal idazleen giroa duela berrogei bat urte" izeneko gaiaz aritu izan da Peillen jauna, erantzuna, Alfonso Irigoyen euskaltzainak egin diolarik.



Ezkerretatik eskumatara: A. Irigoien euskaltzaina, Tx. Peillen euskaltzaina, J. M. Lekuona buruordea, M. Noblia Baionako zinegotzia, J. Haritschelhar euskaltzainburua, J. M. Satrustegi idazkaria eta J. A. Arana Martija diruzaina.

– Maiatzaren 25, 26 eta 27an, Juan Antonio Ubillosen bigarren mendurrena dela medio, Euskaltzaindiak hileroko bilkura Irurako "Laskibar" Hotelean egin du eta hurrengo egunetan, Billabonako Kultur Etxean, I. Herri Literatura Jardunaldiak egin dira kontapoesia gaiaz beste sail baten garatuago agertzen den bezalaxe. Burutzeko, larunbat arratsaldean, bi ekintza egin ditu, bata, Ubillosen jaiotetxean, Galatas baserrian, oroitarria jartzea eta bestea, Kultur Etxean, Ubillosen omenezko batzar irekia. Bertan, Eduardo Laborde herriko

Alkate eta Jean Haritschehar euskaltzainburuaren sarrera hitzen ondoren, hiru txosten aurkeztu dira: A. Karmelo Iturria historiagileak, "Juan Antonio Ubillosen bizitzaz"; A. Luis Villasantek, "Ubillosen *christau doctriñ berri-ecarlea* liburu horren berezitasun batzuez oharrak"; eta Patxi Altunak, "Zergatik edizio kriti-koa" gaiaz.

— Ekainaren 23an, Gasteizko Udaletxean, bezperan, Arabako Ordezkaritzan, Batzorde arduradun guztiekin Zuzendaritzak egindako bilkura eta goizeko Onomastika Batzordearenaz gain, beste bi egin ditu: lehena, hileroko euskaltzainena eta bigarrena, Gerardo Lopez de Gereñu euskaltzain ohorezkoaren omenez, *Toponimia alavesa seguido de Mortuorios o despoblados y Pueblos alaveses* haren lan bilduma liburu gotorraren aurkezpena, bide batez, egiteko. Azkenengo honetan, hiriburuko Alkate den Jose Angel Cuerda eta euskaltzainburuaren jardunen ondoren, Endrike Knörr, Arabako ordezkari eta Onomastika Batzorde buruaren txostena eta Gerardo Lopez de Gereñuren esker oneko hitzak entzun dira.

— Uztailaren 28an, Gernikan, bezperan, Batzorde Juridikoa sortu berria lehen aldiz bildu ondoren, hileroko bilkura egin du. Arratsaldean, Alegria Jauregian, Gernikako Arbolatik hurbil, Jose Antonio Arana Martija euskaltzainaren sarrera ospatu da. Juan Luis Zusaeta, Gernika-Lumoko Alkatearen eta Jean Haritschehar euskaltzainburuaren hasierako berbaldien ondoren, "Euskaltzaindiko aulkien historiaz hurbiltze bat" izaneko gaiaz aritu izan da Arana Martija jauna. Erantzuna, Luis Villasante euskaltzainak egin dio.



Ezkerretatik eskubitara: Fr. L. Villasante euskaltzaina, Tomas Uribeetxebarria Bizkaiko Kulturako Foru Diputatua, Juan Luis Zusaeta Gernika-Lumoko Alkatea, Jean Haritschehar euskaltzainburua, M. Karmen Garmendia Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia, J. M. Satrustegi idazkaria eta Jose A. Arana Martija diruzaina.

— Azaroaren 24ean, Banco Bilbaoren sortze egoitzan, hiru akademi ekin-tza burutu ditu. Lehena, hileroko euskaltzainena. Bigarrena, *Euskalerraren Yakin-tza* Resurrección Maria Azkueren lau liburukien berrargitalpena aurkezteko, bertan partaide izan direlarik: Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Jose Luis Lechosa, Espasa-Calpe argitaletzeko zuzendari nagusia; Francisco Perez Garzon, Banco Bilbao Vizcayaren erakunde harremanetako arduraduna; eta Jose Maria Satrustegi, Euskaltzaindiko idazkaria. Hirugarrena, batzar irekia, bi euskaltzaleen omenez antolatua: Antonio de Truebaren heriotzeko ehun urte betetzen direlarik, "Antonio de Trueba eta euskara" izeneko txostena Jose Antonio Arana Martijak irakurtzen du eta Aita Estefania oroituz, Patxi Altunak honako hitzaldi hau ematen du: "Jose Maria Estefania Zabala 1889-1942. Orixeren eta Lauaxetaren garaiko zenbait euskal poetaren gidaria".

— Abenduaren 28 eta 29an, Euskaltzaindia Nafarroako hiriburuan izan da, Jose Agerre sorrerako euskaltzainaren heriotzeko ehun urteburua dela eta. Lehenengo egunean, Zuzendaritza eta Jagon Saila bildu dira Euskaltzaindiko Ordezkaritzan; bigarrenean, hileroko euskaltzainen bilera egin da, leku berean; eta Nafarroako Gobernu Jauregian, batzar irekia, partaide eta gai hauekin: Aladino Colin, Nafar Gobernu Kontseilariak hasiera eta amaierako hitzaldia-ekin; Jean Haritschelhar, euskaltzainburak sarrera hitzaldiño batekin; Patxi Zabaleta euskaltzainak "Jose Agerreren eragina Nafarroako euskara munduan" hitzaldiarekin; Conchita Ochoa, Migel Javier Urmenetaren alarguntsak, "Agerre y el vascuence", bere senarraren argitaratu gabeko idazlanarekin; eta Jose Maria Satrustegi euskaltzaina eta idazkariak "Migel Jabier Urmenetaren ome-nez" hitzaldiarekin.

1.2. OSOKO BILKURETAKO ERABAKIAK

1989.urtean aipagarri daitezkeen beste erabaki akademiko solte, alegia, batzordeez landa, hileroko euskaltzainen osoko bilkuretan landutakoak. Azpimarragarrienak hauek lirateke:

– Urtarrilekoan eta Martxokoan aztertu eta onartu dira “marrazki landuen izenak” hiztegia deritzonaren zerrenda biak.


– Martxokoan eta Apirilekoan, Euskaltzaindiaren protokolo arauak eta akademi deituren izendegia.

– Apirilekoan baita ere, Iruñeko “Euskalerrria” Irratia sortzeko, Euskaltzaindiaren atxikimendua agertzea erabaki da.

– Maiatzekoan, Amurrioko Udalak eskaturik, bere barrutiko herrixka eta Junta Administrativa/Administrazio Batzordea izendegiak.

– Hil berean, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak eta Herri Ardularitzako Euskal Erakundeak (IVAP) antolaturiko Administrazio eremuko terminologiari buruzko Jardunaldietan parte hartzea erabaki du, txostengile gisa Ibon Sarasola eta Jose Luis Lizundia joan direlarik.

– Ekainekoan, Euskal Herriko lau Foru Ogasunetako –Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa– Errenta Aitorpenaren testu osoen euskal itzulpenak aztertu dira, jarraian espreski batzordeño batek burutu eta onartu duelarik.

Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas
1989
Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga
<p>PRESENTE su declaración en este sobre a la Caja de Ahorros o Banco elegido para recibir el importe de la devolución o efectuar el ingreso.</p> <p>AURKEZTU zeure aitortpena kartazal honetan sarrera egiteko zein itzulketaren zenbatekoa jasoteko aukeratu duzun Aurrezki Kutxan edo Bankuan.</p>
<p>Datos a cumplimentar por la Entidad Colaboradora Entitate laguntzaileak beteitzeko datuak</p> <p>D.N.I. n.º: N.A.N. zk.:</p> <p>Importe: Zenbatekoa:</p>

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA DIPUTACION FORAL DE BIZKAIA
OGASUNA ETA FINANTZAK HACIENDA Y FINANZAS

– Irailekoan, 1989ko Gorteetako Hauteskunde txartel eta gainontzeko dokumentazioen testu bateratzea egin du, Gobernu Zentralaren Ordezkaritzaren aginduz.

– Irailekoan eta Urrikoan, RENFEk igorritako trenekiko izendegi eta hitz zerrendak aztertu eta onartu dira.

– Urrikoan, baita ere, “Instituto Vasco de la Mujer/Emakumearen Euskal Erakundeak”k eskaturik, *Emakunde* izen berezizat hautatu da.

1.3. BATZARRE TXOSTENAK

Hileroko batzarretan txosten akademikoak izaten dira, bai arruntetan, gai solte edo librean, edo bai mendeurren edo bestelako ospakizun bat denean, dagozkion gaiari lotuak. Gai akademikoak izaten dira gehienetan, hizkuntza, ikerkuntza edo literaturari lotuak.

Gai solteetan, 1989.urtean emandako txostenetan, hauek azpimarra daitezke:

– “Literatur kritika eta ikerketa”, Juan Mari Lekuona euskaltzainburuordeak aurkeztua.

– “Wentworth Webster-en ‘Basque Legends’”, Jose Antonio Arana Martija euskaltzainak.

– “Euskal Herria Oihenarten atsotitz eta errefracuetan”, Jean Haritschelhar euskaltzainburua.

– “Ohar bat edo beste euskal literaturaren historiaren inguruan”, Piarres Charritton euskaltzainak.

– “Sonetoaz bi argibide”, Jean Louis Davant euskaltzainak.

– “Euskararen fonotekaz”, Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain, Dialektologi batzordekide eta Euskal Herriko Hizkuntz Atlasgintzako arduradunek.

– “Izen ez-propidun elkarketaz”, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta LEF batzordekide den Juan Carlos Odriozolak igorria.

Mendeurren, sarrera hitzaldi eta gainontzeko gertakizun berezietan emandako txostenak ez dira zertan sail honetan errepikatu, zeren eta dagozkien lekuetan aipatuak izango bait dira.

1.4 GERTAKARI AKADEMIKO ETA EKINTZA ORDEZKAGARRI ZENBAIT

1989.urtean izan diren gertakari akademiko solte nagusien aipamena egiten da sail honetan. Beste erakunde batzuren ekintza garrantzitsu zenbaitean Euskaltzaindia ordezkatu denaren albistea ere ematen da.

Urtarrila

– 19an, Zuzendaritza berriaren kargu hartzea ospatu da Bizkaiko Foru Diputazioan. Jose Alberto Pradera, Bizkaiko Diputatu Nagusiaren ongi etorriaren ondoren, Jose Maria Satrustegik, idazkari legez, hautaketa agiria irakurtzen du. Jarraian, Luis Villasante, euskaltzainburu ohiak 1970ean, A. Manuel Lekuonagandik hartutako lekukoa, buru berriari uzten dio. Segidan, Jean Haritschelhar euskaltzainburu berriak oroitarazten du bizkaitar batek Zuberoako hiribu-

ruan hartu bazuen kargua, orain, Iparraldeko batek gauza bera egiten duela Bizkaiko Diputazioan. Amaierako hitzak, Jose Antonio Ardanza Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak egiten ditu.



Ezkerretatik eskumatara: J. L. Telleria Kulturako Foru Diputatua, J. R. Peciña Arabako Kulturako Foru Diputatua, Jean Haritschelhar euskaltzainburua, Fr. Luis Villasante euskaltzaina, M. Karmen Garmendia Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia eta Tomas Uribeetxebarria Bizkaiko Kulturako Foru Diputatua.

Otsaila

— Hil honetan kontu ematen da Onomastika Batzordeak kide bat galdu duela neguan, hain zuzen, Eugène Goyheneche lapurtar historiagile eta ikerle ospetsua. Jean Haritschelhar euskaltzainburuak idatzi du hilberri txostena.

Martxoa

— 16an, Jesus Maria Leizaola Sanchez hil da. Euskadiko Lehendakari ohia izatez gain, euskaltzain ohorezko ere bazen eta euskal literatuaren ikerle. Haren hilberri txostena Juan San Martin euskaltzainak prestatu du.

– 20an, Nafarroako Gobernuaren buru den Gabriel Urralburu eta Lehendakariartzako Kontseilari den Aladino Colinekin izan du audientzia Euskaltzaindiko Zuzendaritza berriak.

– Juan San Martin, Eusko Legebiltzarrak "Ararteko" izendatzen du eta horren ondorioz, Euskaltzaindiko kargu guztiak utzi behar izan ditu: buruordetza, Gipuzkoako Ordezkaritza, Jagon Sailburutza, HABE erakundearen Akademiaren ordezkaritza eta Campion-Broussain Elkartearen gerente izatea.

– 31an, Bidarten egindako bilkuran San Martinek utzitako karguak hautatu dira: Juan Mari Lekuona, euskaltzainburuorde eta Donostiako ordezkaritza; Endrike Knörr, Jagon Sailburu eta HABE erakundearen Akademi ordezkaritza eta Campion-Broussain Elkartearen Kontseilu buru, Jean Haritschelhar eta gerente, Jose Antonio Arana Martija. Bilkura berean birresten da Jean Haritschelhar euskaltzainburua eta Jose Mari Satrustegi idazkaria izango direla ordezkaritza Eusko Ikaskuntzaren batzorde iraunkorrean.

– *Diccionario Retana de Autoridades del euskera* delakoaren aurkezpena Jose Antonio Arana Martija diruzaina joan da.

Apirilean

– 1ean, eta Txomin Peillen euskaltzain berriaren sarrera egunaz baliaturik, Baionako Udaletxean, Henri Grenet auzapezak, Pirineo Atlantikoetako Kontseilu buru ere baita, Euskaltzaindiko Zuzendaritza berria hartu du.

– Poznan (Polonian) izandako Nazioarteko Kongresu batetan, Pello Salaburu euskaltzainak eraman du Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren ordezkaritza.

– E. R. Jeffrey Waite Zelanda Berriko "maori" hizkuntzaren akademikidea Euskaltzaindiko egoitzara eta beroren hileroko batzarrera etorri da.

Maiatza

– Euskaltzaindiaren *Orotariko Euskal Hiztegiaren* lan taldearentzako bulego berriak alokatu dira Donostiako Marina kalearen 4-2.ean.

– 16an, Herri Urrats, Iparraldeko Ikastoleen SEASKA elkarteak antolatutako ekitaldira, Jean Haritschelharek ordezkatu du Euskaltzaindia.

Ekaina

– 13an, Atharratzeko "Ziberoaren Pizkunde" Kultur elkarteak antolatutako Euskal Kantu Txapelketarako, Euskaltzaindiak eman du bere saria.

– 23an, Batzordeetako buru, idazkari eta arduradunekin, bilkura bat egin da Gasteizko Ordezkaritzan, 1990erako programa eta ekintzan plangintza prestatzeko.

– Egun eta hiri berean, Euskal Herriko Unibertsitatearekin Euskaltzaindiak Hitzarmena egitea onartu du, Leioan 27an, sinatu zena ondorioz jarraipen batzordekide izendatu dira: Jean Haritschelhar, Endrike Knörr eta Pello Salaburu euskaltzainak.

Uztaila

– 6an, Juan Garmendia Kortadi "Zeleta" euskaltzain urgazlea hil da Logroñon. Idazle eta hizlari oparo honen hilberri txostena Juan San Martinek idatzi du.

– 14ean, Bilbon Euskaltzaindiaren behin-behineko bulego berriak inauguratu dira, Elkano kaleko 5ean. Mahaipuruan, Euskaltzaindiko Zuzendaritzaz gain, Inazio Etxebarria Lehendakaritza Saileko Diputatuak Foru Administrazioa ordezkatzen duelarik.

Iraila

– 4tik 9ra, Santiago de Compostelan XIX. Erromar Filologiaren Nazioarteko Kongresuan, txosten batekin ordezkarri, Endrike Knörr, Onomastika batzordeburua izan da.

– 12an, Iruñean, Nafar Gobernuak antolaturiko euskarari buruzko erakusketan, Jose Mari Satrustegi idazkariak ordezkatu du Euskaltzaindia.

– 16an, Uztaritzen, Eusko Ikaskuntzak, Eugène Goyhenecheri antolaturiko omenaldian, Endrike Knörrek ordezkatu du Euskaltzaindia, zeren eta Goyheneche jauna, Onomastika Batzordekoa bait zen.

– 29an, Donostian, Euskaltzaindiaren Ordezkaritza berria inauguratu da, Hernani kaleko 15.enean. Mahaipuruan: Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Juan Mari Lekuona, buruorde eta Gipuzkoako ordezkariaz gain, Jose Maria Lete eta Jose Luis Telleria Foru Diputatuak izan dira.

Egun berean, Natela Sturua, Georgiako Unibertsitateko euskal irakasleari ongi etorria eman zaio hileroko batzarrean.

Urria


– 7an, Oñatiko Unibertsitate zaharrear, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuak, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Diputazioek, Euskaltzaindiarekin hitzartu duten Akordioa sinatu da. Eli Galdos, Oñatiko Alkatearen ongi etorriaren ondoren, Jose Antonio Ardanzak, Eusko Jaurlaritzako Lehendakari erara; Aladino Colin, Kontseilariak, Nafarroako Gobernuaren orde; eta Imanol Murua, Gipuzkoako Diputatu Nagusiak, Hiru Foru Diputazioen izenean, hitzaldi bana egiten dute. Eskerrak emanez eta egun historikoaren ospea azpimarratuz mintzatu da Jean Haritschelhar euskaltzainburua.



Ezkerretatik eskubitara: Jon Bilbao eta Santiago Onaindia euskaltzain ohorezkoak, A. Irigoien, P. Charritton, E. Knörr, F. Krutwig, P. Altuna, P. Salaburu euskaltzainak, J. M. Lekuona buruordea, J. M. Satrustegi idazkaria, J. A. Arana Martija diruzaina, Fr. L. Villasante, J. San Martin euskaltzainak.

Hitzarmenaren sinatzaile: Mari Karmen Garmendia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikaren Idazkari Nagusia; Estebe Petrizan, Nafarroko Gobernuko Hizkuntz Politikarako Zuzendari Nagusia; Jose Ramon Peciña, Tomas Uribeetxebarria eta Jose Luis Telleria, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Kultura Saisetako Foru Diputatuak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburua izan dira.

A C U E R D O
ENTRE EL GOBIERNO VASCO
GOBIERNO DE NAVARRA
DIPUTACIONES FORALES
Y EUSKALTZAINDIA



EKIN ETA JARRAI



EUSKO JAURLARITZA
NAFARROAKO GOBERNUA
FORU ALDUNDIAK
ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO
HITZARMENA

—20an, Bilboko egoitzan, Euskal Herriko Ikastolen Federakundeetako ordezkari modura, Antonio Campos, Xabier Garagorri eta Mirari Bereziartua, Euskaltzaindiko Zuzendaritzarekin izan dira, "Euskal Eskolaren diseinuaz" izeneko liburuki eta dosierra aurkeztera.

Azaroa


– 24ean, Txomin Peillen euskaltzainak, Junes Casenave urgazlearen *Hiztegia français-euskara* aurkeztu du Bilbon egindako hileroko bilkuran.

– Federiko Krutwig euskaltzainak, Athenetan, 1989ko "Homero" saria deritzona jaso du.

– Xabier Gereño urgazleari, Euskaltzaindiko kontulari bezala jubilatuta denetik, esker onez oroigarritzko pergamua ematen zaio.

Abendua

– 9an, Durangoko XXIV. Euskal Liburu eta Disko Azokako aretoan, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* hirugarren luburukia aurkeztu du Euskaltzaindiak. Partaide edo mahaiburuko izan dira: Ibon Sarasola, Hiztegiaren zuzendariak gain; Estebe Petrizan, Nafarroako Gobernuko Hizkuntz Politikarako Zuzendari Nagusia; Jose Luis Telleria, Gipuzkoako Kultura Saileko Foru Diputatua; Roman Berriozabal, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiko Kontseilaria; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua eta Anton Mari Aldekoa-Otalora, Gerediaga elkartearen burua. Ibon Sarasolak bere mintzaldian garatu ditu hirugarren ale honen berezitasunak.



– 12an, zendu da Loiolan, Patxi Etxebarria euskaltzain urgazlea. Idazle eta kazetari honen hilberri txostena Patxi Altuna euskaltzainak eman du, hurrengo batzar arruntean.

– 15ean, Arrasateko Monterron Kultur Etxean, Euskaltzaindiak, Zuzendaritzaren eta Argitalpen Batzordearen bilkurak egin ditu. Iluntzean, Xabier Zubizarreta, herriko Alkatea buru delarik, Jokin Zaitegi euskaltzain ohorezkoaren ekintza egin da haren *Platon VI* liburua, Euskaltzaindiak argitaratuaren aurkezpena, Juan San Martin euskaltzainak egin duelarik.

– 17an, Donostian, Anoetako Belodromoan, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren azken saioan, Juan Mari Lekuona euskaltzainburuordeak, Jon Lopategi txapeldun berriari, Euskaltzaindiaren trofeoa eman dio.

– 23an, Hendaiako Udaletxean, Euskaltzaleen Biltzarrak ospaturiko urteko batzar nagusian, Iparraldeko euskaltzainez gain, Juan Mari Lekuona, Endrike Knörr, Patxi Altuna eta Juan San Martin izan dira partaide, euskal herrialdeetako beste zenbait agintari eta kultur ordezkariekin batera.

1.5. EUSKALTZAINDIKO BATZORDEEN ORGANIGRAMA

VI. Barne Jardunaldietan, Lazkaon, 1989.eko Otsailaren 24 eta 25ean osotua.

Iker Sailburu: Luis Villasante

I. Hiztegegintza

Batzordeburu: Ibon Sarasola

Batzorde hau hiru Azpibatzerdetan banatzen da:

I.1. Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)

Arduradun: Ibon Sarasola

Idazkari: Iñaki Segurola

Kideak: Hiztegegintza lantaldekoak

I.2. Lexikologi Erizpideak Finkatzeko (LEF) Azpibatzerdea

Arduradun: Miren Azkarate

Idazkari: Jose Antonio Aduriz

Kideak: Patxi Altuna, Juan Carlos Odriozola, Andoni Sagarna, Martxel Ensunza, Patxi Goenaga, Jose Mari Irazola, Jose Mari Larrarte, Luis Mari Mujika, Lourdes Otaegi, Beñat Oihartzabal, Ibon Sarasola, Patxi Uribarren, Tomas Uribeetxebarria, Patri Urkizu, Mikel Zalbide.

I3. Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (EEBS) Azpibatzordea

Arduradun: Andres Urrutia
Idazkari: Andoni Sagarna
Kideak: Jose Antonio Aduriz, Claude Harlouxet, Jazinto Iturbe, Jose Mari Larrarte, Mikel Lasa, Eneko Oregi, Lourdes Otaegi, Ibon Sarasola.

II. Gramatika

Buru: Patxi Altuna
Buruorde: Pello Salaburu
Idazkari: Patxi Goenaga
Idazkariorde: Maria Pilar Lasarte
Kideak: Lino Akesolo, Miren Azkarate, Pierre Charritton, Andolin Eguzkitza, Jean Haritschelhar, Alan King, Jose Mari Larrarte, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Karmele Rotaetxe.

III. Dialektologia

Buru: Francisco Ondarra

III.1. Euskal Herriko hizkuntz Atlasgintza (EHHA) Azpibatzordea

Arduradun: Jean Haritschelhar
Idazkari: Gotzon Aurrekoetxea
Kideak: Ana Mari Etxaide, Jose Mari Etxebarria, Xarles Videgain.

III.2. Euskalkien Ikerketa Arruntak (EIA) Azpibatzordea

Arduradun: Txomin Peillen
Idazkari: Xarles Videgain
Kideak: Gotzon Aurrekoetxea, Ana Mari Etxaide, Jose Mari Etxebarria, Iñaki Gaminde, Alfonso Irigoyen, Rosa Miren Pagola, Karmele Rotatxe.

IV. Onomastika

Buru: Endrike Knörr
Buruorde: Alfonso Irigoyen
Idazkari: Jose Luis Lizundia
Kideak: Ricardo Cierbide, Jose Antonio Gonzalez Salazar, Andres Iñigo, Jose Maria Jimeno Jurio, Jean Baptiste Orpustan, Patxi Salaberri, Juan San Martin, Jose Mari Satrustegi.

V. Literatura

Buru: Juan Mari Lekuona

V.1. Literatura Klasikoa Azpibatzerdea

Arduradun: Federiko Krutwig

Idazkari: Jesus Lavin

Kideak: Mikel Agirreazkuenaga, Gurutz Ansola, Adolfo Arejita, Manu Erzilla, Jon Gotzon Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Alfonso Irigoyen, Juan Jose Pujana.

V.2. Herri Literatura Azpibatzerdea

Arduradun: Antonio Zavala

Idazkari: Pello Esnal

Kideak: Jose Mari Aranalde, Antton Aranburu, Jesus Mari Etxezarreta, Alfonso Irigoyen, Jose Mari Iriondo, Mixel Itzaina, Emile Larre, Juan Mari Lekuona, Abel Muniategi.

V.3. Gaurko Literatura Azpibatzerdea

Arduradun: Juan Mari Lekuona

Idazkari: izendatzekotan

Kideak: izendatzekotan

VI. Jagon Sailaren batzordekideak

Jagon sailburu eta Gasteizko Ordezkarri: Endrike Knörr

Donostiako Ordezkarri: Juan Mari Lekuona

Iruñeko Ordezkarri: Jose Mari Satrustegi

Baionako Ordezkarri: Pierre Charritton

Egoitzatik: Jose Antonio Arana Martija, diruzaina

Jose Luis Lizundia, idazkariordea

Egiturazko Batzordeak

VII. Azkue Biblioteka

Buru: Pello Salaburu

Arduradun=idazkari: Jose Antonio Arana Martija

Ekonomi Eragilea: Juan Jose Zearreta

Kideak: Federiko Barrenengoa, Jon Bilbao, Jon Gotzon Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea.

VIII. Argitarapenak

Buru: Jean Haritschelhar

Eragile=idazkari: Ricardo Badiola

Kideak: Juan Mari Lekuona, Jose Mari Satrustegi, Jose Antonio Arana, Luis Villasante, Endrike Knörr, Pello Salaburu, Patxi Altuna, Pierre Charritton.


IX. Aholku Juridikoa

Buru: Jean Haritschelhar

Idazkari: Jose Luis Lizundia

Kideak: Jose Antonio Arana, Abel Muniategi, Andres Urrutia, Patxi Zabaleta.

2. IKER saileko batzordeak



2.1. HIZTEGIGINTZA BATZORDEA

Batzorde honek hiru azpibatzerde ditu, hots:

2.1.1. Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)

2.1.2. Lexiko Erizpideen Finkapena (LEF)

2.1.3. Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa (EEBS)

2.1.1. OEH azpibatzerdea

III. liburukiari dagokionez, koordinazio eta zuzenketa lanaren % 75 edo burutu du OHEko lantaldeak, hots, lehendabiziko berrikusketatik falta zena.

Datu eta sarrerren kontrol eta argitatzeko material guztia behar bezala prestatzea: % 60a edo egin da, hots, lehen zegoenaz gain gehitze eta itxuraldatze guztiak antolatzea.

IV. liburukiari dagokionez, lehenbiziko idaztaldi behin-behinekoa burutua dago. Aurtengo erdia edo egingo zen, udatik udara edo egiten baita liburuki bakoitzari dagokion lan hau. V.ari dagokiona hasia izango litzateke beraz.

Datu eta sarrerren kontrola eta zuzenketa ere % 75eraino edo aurreratua dago. IV. liburuki honen lehenbiziko berrikurteketa Azaroan ezin izan da egiten hasi, Abenduaren erdialdera edo atzeratuz.

Bestalde, zenbait testu berri sartu dira corpus-ean, baina berriak diogu, sartu berriak direlako, zaharrak baitira, zaharrenetakoak eta batera premiazkoak ez ezik ezin-utzitakoak. Horretarako, gainera uda partean lan hori egiteko pertsona bat hartu behar izan da.

Testuak honako hauek dira:

– Etxeberri Ziburukoaren *Manualaren* 2. liburukia eta *Elizara erabiltzeko liburua*.

– Tartasen bi liburuak *Arima* eta *Onsa*; eta azkenik,


– Haranburu eta Harizmendiren liburuak.

Lan honen -testu hauen eta besteren- premiazkotasunaz, irakur daiteke Rudolf de Rijk-ek hiztegi-az, eta bereziki I. liburukiaz, egin duen kritika, *Anuario del Seminario de Filologia Vasca Julio de Urquijo (ASJU)* ren azken ale batetan.

Koldo Mitxelenaren euskarazko obra guztia biluzturik eta corpus-ean sarturik edukitzeko, lehendik *Mitxelenaren idazlan hautatuak (MIH)* liburua sartua zegoelarik, falta ziren Mitxelenaren euskal izkribuak sartu dira, kontutan izanik gainera, oraindik orain modu eroso batean argitaratu izan direla. Bidena-bar esan, lehen aipatu den R. de Rijk-en artikuluan ere, autorea Mitxelenaren obra guztiak ez sartu izanagatik kezu agertzen da, eta lan hori egin beharraren premia azpimarratzen du.

Horrezaz gain, Mitxelenaren fitzak sartzen jarraitu da, eta "G" letraraino sartu dira.

Baita ere, Juan Martin Elexpururen *Bergara aldeko lexikoaren* sarrerak fitxatan sartu dira; eta azkenik, Martin Harrieten *Gramatikako* hiztegitxoak ere fitxatan sartu dira, era berean. Honen garrantzia oraindano uste baino askoz handiago da: Joseba Lakarraren ikerketen arabera, eta berak jakinerazi digunez, eta taldeak ikusi ahal izan duenez, M. Harriet da Larramendiren Hiztegiaren *Suplementoaren* iturrietarik bat, hitz askotxotan gainera. Beraz, honek zenbait hitzen lehenbiziko agerraldiaren data aurreratzen du, eta euskal hiztegi-gintzako iturri arazoak argitzen laguntzen du.



OEHren lantalde Ibon Sarasola eta Iñaki Seguioren koordinazio eta zuzenketa ardurapean dago; datu eta sarreraren kontrola eta zuzenketa: Arantza Egia eta Elixabet Kruzetak daramatelarik eta erredakzio lanak: Gabriel Fraile, Mari Jose Kerexeta, Blanca Urgell eta Eduardo Valenciak.

2.1.2. LEF Azpibatzerdea

1. Hitz-elkarketa

1987 eta 1988. urteetan egindako Jardunaldietan aurkeztu ziren txostenak berrikusiz, *Hitz Elkarketa/2* eta *Hitz Elkarketa/3* liburugaiak prestatzen ari

izan dira Mikel Zalbide eta Miren Azkarate batzordekideak. Lana oso aurreratu dago, erabat burutu ez den arren: norik bere aldetik landu zituen txosten guztiei batasuna emateak, izan ere, horietako batzuk guztiz berregitea ekarri du, edo, Jardunaldietan egindako iradokizunak jasoz, gutxi-asko birmoldatzea. Ildo beretik, hitz elkartuen sailkapena bera aldatu beharra egon denean, ikerlan berriren bat edo beste egin beharrean gertatu dira prestatzaileak, informazio teorikoa nahiz adibidetegia berriro aztertuz. Nolanahi ere, 1990. urteko Urtarril-Otsailetan prest egon daiteke liburugaion lehen idazketa.

2. Hitz-elkarketari buruzko sintesi lana

Jadanik argitaratua den *Hitz-elkarketa/1* eta laster prest izango diren *Hitz-elkarketa/2* eta *Hitz-elkarketa/3* liburuetan luze-zabal arakutzen dira euskal hitz elkartuak. Ikerlanezko azalpen horren ondoan, eta horren emaitza gisa, laburbilduma bat taxutzen ari izan da Batzordea, batez ere ondorio praktikoei begira, adibidez, osagaien elkarketan gertatzen diren hots-aldaketen zehaztapena, edo idazkera-proposamenak, Euskaltzaindiak ere egunean hartuko dituen erabakiak errazteko xedearekin.

Bi azalpen-mota hauen arteko lotura hertsia bait da, aldi berean egin behar dira, eta horregatik, batera burutuko: liburuak gertu izatean izanen da gertu azalpen laburbildua ere.

3. Eratorpena aztertzeke adibidetegia

Testuetan ageri diren forma eratorriak izango ditu aztergai, nagusiki bederen, Batzordeak ondoko saioretan, hitz-elkarketaren azterketarako erabaki zen bide beretik. Lehenik, testu horien corpus-a erabaki eta mugatu du aurtan Batzorde eragileak, Ibon Sarasola Hiztegegintza batzordeburuarekin kontsultatuz: 40 autore eta 50 liburu hautatu dira, batetik, tradizio zaharra: Axular, Lizarraga, Mendiburu, Prai Bartolome, eta abar: nahiz berriagoa: Txomin Agirre, Orixe, Lizardi, Koldo Mitxelena, Luis Villasante, eta abar, isladatu nahirik, eta, bidenabar, baita euskalki-banaketa ere; bestetik, berriz, oraingoko erabile-
ren "zuzen" edo ez hain zuzenen berri izateko xedearekin, aldizkari eta egunkarietako 120 bat artikulu gehitu da. Hamaika batzordekiren artean banatu dira ondoren testuok, 1.200 bat orrialde, forma eratorriak eta dagozkien testuinguru adierazgarriak seinala zitzaten. Amaituta dago lan hori; eta ia amaitua, guzti hori euskarri magnetikoan jartzea, eta baita ondoko tratamendu informatikoa ere.

4. Hitz eratorrien sailkapena

Forma eratorrien edota/eta atzizkien banakako ikerketari ekin aurretik, zein metodologiaz eta nolako sailkapenez baliatuko den eztabaidatu eta aukeratu nahi izan du Batzordeak, txosten puntuak egitean homogeneousitasun bat egon dadin hasieratik beretik. Horretarako, batetik, txosten bat egin du Miren Azkarate batzordeburuak, sailkapen posibleak bilduz eta bakoitzaren abantaila eta mugak argituz; eta, bestetik, hainbat ohar, galdera eta iradokizun jaso ditu Batzorde eragileak, lankideek, corpus-a landu ahala, bildu eta formulatuak.

ERATORPENERAKO CORPUSA OSATZEKO PROPOSAM. (zk.)

	Kod. Cód.	LANA OBRA	orrialdea página		THIK.	LAGIN.
			hasi com.	buka final		
1	EC48	AGUIRRE: Eracusaldiak (III)	3	633	100.000	8.479
1	ED44	LARREGUY: testament çaharreco eta berrico hist. (I)	13	377	67.000	5.681
1	ED46	UBILLOS: <i>Christau doctriñ berri-ecarlea...</i>	3	244	24.000	2.035
1	EM39	MITXELENA: <i>Euskal idazlan guztiak (IV)</i>	21	135	37.000	3.137
1	EM45	MAISTER: Jesukristen imitacionia	1	405	54.000	4.578
2	ED45	LARREGUY: testament çaharreco eta berrico hist. (II)	1	454	80.000	6.783
2	EJ72	ELISSAMBURU: Piarres Adame	5	51	10.000	848
2	EJ72	ITURRALDE: Murtuts eta bertze...	55	119	13.000	1.102
2	EL70	MITXELENA S.: Ama-Semeak Arantzazuko kondairan	11	263	35.000	2.968
2	EM43	MITXELENA: <i>Euskal idazlan guztiak (VII)</i>	23	185	52.000	4.409
2	HE43	LAFFITTE: Pierre Topet-Etchahun	5	15	4.000	339
3	AA05	VILLASANTE: <i>Axularren hiztegia</i>	23	562	5.500	466
3	EJ58	POUVREAU: Andre dana Maria privilegiatua	11	99	10.000	848
3	EM44	MITXELENA: <i>Euskal idazlan guztiak (IX)</i>	23	152	42.000	3.561
3	HE28	ETXALDE: Amesai seme Euskalerriko	11	172	30.000	2.544
4	EA64	AZURMENDI J.: Hizkuntza, etnia eta marxismoa	11	318	84.000	7.122
4	EA67	ARREGI R.: Herriaren lekuko	17	352	63.000	5.342
4	EJ62	GARMENDIA Tx.: Bordaberri'ko gozo-mikatzak	9	188	34.000	2.883
4	EM40	MITXELENA: <i>Euskal idazlan guztiak (V)</i>	21	145	40.000	3.392
4	EM41	MITXELENA: <i>Euskal idazlan guztiak (VI)</i>	25	194	55.000	4.663
5	EC79	ORIXE: Jainkoaren billa	5	285	56.000	4.748
5	EJ69	BASARRI: Kezka-giroak	9	158	9.000	763
5	EM36	MITXELENA: <i>Euskal idazlan guztiak (I)</i>	39	262	70.000	5.935
5	HE17	LIZARDI: Itz-lauz	9	147	24.000	2.035
5	HE56	ERDOZAINZI-ETXART: Hinki-hanka poemak	7	113	15.000	1.272
5	HE57	ETXANTZ: Lur berri illa	7	410	80.000	6.783
6	EF92	GIPUZKOAKO DIPUTAZIOA: Nekazaritzako irakurraldiak	3	104	8.000	678
6	EM42	MITXELENA: <i>Euskal idazlan guztiak (VII)</i>	25	194	55.000	4.663
6	HE58	PEILLEN: Itzal gorria	51	166	25.000	2.120
7	EC66	BARTOLOME STA. TERESA: Icasiquizunac (III)	1	375	75.000	6.359
7	EJ40	SAGARNA A.: Maiztasun-bihurtzaile elektronikoen eta..	21	38	2.300	195
7	EM37	MITXELENA: <i>Euskal idazlan guztiak (II)</i>	15	147	40.000	3.392
8	EC47	AGUIRRE: Eracusaldiak (II)	3	517	85.000	7.208
8	EM38	MITXELENA: <i>Euskal idazlan guztiak (III)</i>	15	156	45.000	3.815
8	HE04	ETXEBERRI: Lan hautatuak	23	295	45.000	3.815
8	HE59	ECHEPARE: Buruxkak	25	193	35.000	2.968
9	EC64	BARTOLOME STA. TERESA: Icasiquizunak (I)	1	278	50.000	4.239
9	EJ59	AGIRRE: Kresala	7	236	40.000	3.392
9	EJ70	AZKUE: Parnasorako bidea	21	364	18.000	1.526

ERATORPENERAKO CORPUSA OSATZEKO PROPOSAM. (zk.) (jarraip.)

	Kod. Cód.	LANA OBRA	orrialdea página		THIK.	LAGIN.
			hasi com.	buka final		
9	HE20	MOGUEL: Peru Abarca	43	219	35.000	2.968
9	HE21	KIRIKIÑO: Egunekoa	23	228	40.000	3.392
9	HE48	ALTUBE S.: Laztantzua eta betargi	13	119	20.000	1.696
10	EI30	MENDIBURU: Mendibururen idazlan argitaragabeak (P. Altuna) (I)	7	573	160.000	13.566
10	EI31	MENDIBURU: Mendibururen idazlan argitaragabeak (P. Altuna) (I)	9	356	100.000	8.479
11	EB22	HIRITART-URRUTY: Zezenak Errepublikan	11	212	25.000	2.120
11	EC46	AGUIRRE: Eracusaldiak (I)	5	626	100.000	8.479
11	EC61	AÑIBARRO: Escu-liburua...	2	236	16.000	1.357
11	EC65	BARTOLOME STA. TERESA: Icasiquizunac (III)	1	298	60.000	5.087
11	HE02	LEIZARRAGA: Doctrina Christioaren catechima	87	190	15.000	1.272
12	EC16	LAPHITZ: Bi saindu hescualdunen bizia	1	251	40.000	3.392
12	EI29	LARDIZABAL: Testamentu zar ta Berrico Condaira.. (1908, 2. ed.)	11	692	170.000	14.412
12	EJ04	TREKU M.: Mattin, nere gizona	15	162	25.000	2.120
12	EJ54	DAVANT: "Udan irakurriak" Lafitte-ri omenaldia	741	750	2.700	229
12	HE16	URRUZUNO: Sasiletrau baten zirria ta abar	11	139	24.000	2.035
Guztira					2.449.500	207.690

2.1.3. EEBS Azpibatzerdea

1. Testuak euskarri informatikoen jartzea

Testuak euskarri informatikoan jartzerakoan hiru urratseko prozesu bat segitzen da:

- 1) Testuak irakurgailu optikoz ordenadorean sartzen dira.
- 2) Testuak formatu arautu baten arabera jartzen dira.
- 3) Testuak originalarekin gonparatuz zuzentzen dira.

1989. urtean lehen bi urratsak guztiz burutu dira 2.000.000 testu-hitzeko corpus-arentzat. Hirugarren urratsa 700.000 testu-hitzeko corpus-atal batek egina zuen urte-amaieran. 1990. urtearen lehen herenaren barnean corpus osoa zuzenduta edukitzea espero da.

Aldez aurretik jarriak zeuden helburuak ez dira oso-osorik bete. Izan den desbiderapen txiki honen errua ekipamendu eta programeria informatikoa eskuratzea uste baino beranduxeago gertatu izanari egotz dakioke.

2. Corpus zerrendatuaren prestakuntza

Corpus zerrendatuaren prestakuntza testuen hustuketaren emaitza da. 1989. urtearen amaieran 100.000 testu-hitzeko corpus-atal bat gelditu da hustuta eta zerrendatuta. Aldez aurretik egin zen proiektuan corpus zerrendatua lortu ondoren lematizazio-lanei ekitea planteatzen zen. Alabaina, gaur egun proiektu honetarako garatu den programeria informatiko berezituari esker, hustuketarekin batera lematizazioaren parte handi bat egin ahal izango da. Izan ere, RTerm2 deitu hustuketa-programak lematizazioan laguntzen bait dio hizkuntzalariari.

Proiektuak izan duen atzerapena mesedegarri ere gertatuko dela baiezta daiteke, zeren eta bitartean bi tresna lagungarri prestatu ahal izan baitira: bata RTerm2 eta bestea 60.000 testu-hitzeko corpus batez eginiko proba pilotua dela medio prestatu den lematizazio-fitxategia. Erreminta biok osatzen duten multzoak ordenagailuz lagunduriko lematizazio-sistema bat erabiltzea ahalbidetzen du. Denbora asko aurreratu da horri esker, bereziki maiztasun handiko hitzen lematizazioan.

2.2. GRAMATIKA BATZORDEA

Gramatika Batzordeak aurtan 10 bilera egin ditu. Batzorde honek 1989rako bere buruari ezarritako eginkizunak bi arlotan bana daitezke: 1) Alde batetik Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearen (EJIE) laguntzaz buru beharreko BILEGI proiektua eta 2) Gramatika azterketa bera, koordinazioaren ingurukoa berau.

1. BILEGI

BILEGI proiektuaren lehen faseak *Hiztegiko* corpus-a MISTRAL sistema-
ra pasatzea eskatzen zuen, eta corpus hori osorik pasatu aurretik zenbait saio
egitea beharrezkoa zen. Batzordeak 1989aren hasieran Alan Kingen ahotik
aurretiko urtean egindako saio horien berri —zenbait atzerapen dela medio—
izan zuen eta horren ondorioz, corpus informatizatu horretaz baliatzeko era
aldatzea erabaki zuen Batzordeak. Azkenean corpus osoa MISTRALera pasa-
tzea lortu da. Dena dela, informazio horretaz baliatzeko, beka deialdi bat egitea
erabaki zen eta Abendu honetan erabaki. Beka hau datorren urteko lanei
zuzendua izango da.

Hortaz, 1989. urtean gai honetan lan urria egin da. Gehienbat oinarriak
jartzea izan geroko lanari begira nahitaezkoztat jotzen direnak bestalde. Dena
den, arazo honek aski denbora ohostu dio Batzordeari.

2. Gramatika azterketa bera

Aurkeztu eta eztabaidatu diren gramatikari buruzko txostenez honako
hauek esan behar dira:

a) Oinarrizko sarrera

Lehenbizi Gramatika Batzordeak eskuartean duen lanaren gai banaketa-
ren inguruan hainbat eztabaida izan dira, banaketa horren oinarria eskaini
nahian. Hain zuzen, eztabaida honen fruitua izango da lanak eramango duen
sarrerako atala eta lanaren beraren taxua ere. Sarrerako atal hau izango da
lanaren funtsa. Horregatik, arreta bereziz egin beharrezkoa da. Hortik gorakoa
lotkailu zerrenda ordenatu bat izango da, lotkailu bakoitzaren xehetasunak
ematen direlarik dagozkien adibideez osatua.

Sarrera honetan perpausen eta esaldien arteko lotura aurrera eramateko
bide desberdinak bereizi dira:

a) **Lotkailuei** eta **esapidet**ei gauzatzen da solas mailako lotura, eta
b) **juntagailuen** eta **menderagailuen** bidez gauzatzen da perpaus arteko lotura.
Batzordearen lehenbiziko azterlana, hain zuzen, solas mailako **lotkailu** deitu
ditugunetan zentratu da.

b) Lotkailuen azterketa

Eskema nagusi hori gauzatzeaz aparte —eta horrek lan handi samarrak
ekarri ditu— aurtengo bileretan honako txosten hauek aurkeztu eta aztertu dira:

1. "Banakariak" Andolin Eguzkitzak.
2. "Aurkaritza adierazten duten zenbait lotkailu: *ordea, berriz, aldi, aitzetik*, eta abar Patxi Goenagak.

3. "*Bestalde, bestela...*" Jose Mari Larrartek.
4. "*Gainera loktailua*" Beñat Oihartzabalek.
5. "*Hargatik, haatik, horregatik eta abar*" Jose Antonio Mujikak.

6. "*Edo eta ala juntagailu disjuntiboak*" Miren Azkarate eta Karmele Rotaetzek. Honi zenbait kontraproposamen egin zaizkio Jose Antonio Mujika eta Alan Kingen aldetik bereziki.

7. "*Behintzat, bederen eta abar*" Pello Salaburuk. Gehi Patxi Altunaren zenbait ohar.

8. "*Ezen*" Patxi Altunak.
9. "*Dena dela eta dena den*" Miren Azkaratek.
10. "*Ere-ri buruz*" Patxi Goenagak.

Nolanahi ere, txostenotan aztertu diren lotkailu hauek hasieran aurkeztu den eskema horren barnean sarreraziko dira. Horrela, itxuraz zerrenda hotza eta inolako ordenarik gabea litzatekeena, ordena "hirukoitz" horren barruan kokatua geldituko da, lanak itxura borobilagoa izango duelarik. Hain zuzen, orain txostengile guztiak beren azken bertsioa orrazten ari dira. Bertsio horiek, gero, lau batzordekideren eskuetara pasatuko dira eta hauek emango diote azkenurreko forma. Azken hitza Batzordeak berak izango baitu. Dena dela, lanak azkenean izango duen itxura goiko eskemaren araberakoa izango da: sarrera luze bat eta hiru lotkailu moten azterketa eta adibidetegia.

2.3. DIALEKTOLOGIA BATZORDEA

Batzorde honek bi arlotan lan egiten du:

2.3.1. Euskalkien Ikerketa Arruntak Azpibatzerdea (EIA).

2.3.2. Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa (EHHA)

2.3.1. EIA Azpibatzerdea

1989ko urtean Azpibatzerde honek egin duen lana ondoko puntuetan bil daiteke:

1. Bibliografia berezitu baten bideak markatu ditu iaz egindako txosten zenbaiten inguruan: harremanetan sartu da ere Azkue Bibliotekaren zuzenda-

ritzarekin. Informatikak kanpotikako sare baten bitartez ekarriko dituen bideen zain egon da Azpibatzerdea, orduko bildutako lanak eta asmoak obratugabeak gelditzen direlarik. Iduri luke berrabiatu beharko dela lehengo oinarritik, sare informatizatu oso baten menturan egon gabe.

2. Galdakizun berezituaren arazoa zen bigarren langaia. Desegitear dauden ezaugarri zenbaiten jasotzeko galdakizuna aurkeztua izan da, zuzendua eta azkenik onartua.

3. "Salbamendu" operazioa zen Azpibatzerdearen hirugarren lana. Berant hasi da inkestagintza; aipatutako galdakizuna Bizkaiko bost puntutan aplikatzeaz dago: Leioan, Begoñan, Erandion, Basaurin eta Galdakaon. Inkesta horien gerorako zortez ez da erabaki finkorik hartu.

4. Ahozketasuna bera baita Azpibatzerdearen dituen dokumentu gehien ezaugarri nagusia, iazko gogoen ondotik, eta fonoteka baten beharra gero eta nabarmentzenago delarik, bi txosten prestatu dira. Pariseko "Phonothèque nationale"-ko arduradunarekin egiteko zen bilkura ez da aurten egin ahal izan.

5. Batzordekiden lanak. Aipatzen ahal dira, besteak beste, Rosa Miren Pagola burutzen ari den Nafarroako euskalkietan gaindi bildutako datuen analisi fonologikoa eta Xarles Videgainek azaldu dituen Benafarroako Oztibarreko euskalkiaren lexiko berezituaren bilketa eta ikerketa, bi monografia hauek tesi gisa aurkezten baitira Deustu eta Bordeleko unibertsitateetan.

Beste lau lan txosten ere aurkeztu dituzte batzordekideek, gai hauei buruz:

— Xarles Videgainek, "Galdu aginean dagoen barietateen lekukotasuna jasotzeko" txostenari egindako oharra.

— Iñaki Gamindek, "Galdu aginean dagoen barietateen lekukotasuna jasotzeko".

— Xarles Videgainek, "Bibliografia fonotekari buruz".

— Gotzon Aurrekoetxeak, "Euskararen fonoteka".

2.3.2. EHHA Azpibatzerdea

Euskal Herriko Hizkuntz Atlasak 1999arte luzatzen den proiektuan bere bostgarren urtea bete du jadanik, hauetarik hiru inkestagintzan.

Aurten ere urrats garrantzitsuak eman dituela ezin uka, bai inkestetan, bai informatizazioan, bai "Centre National de Recherches Scientifiques" (CNRS) erakundearekin egin asmo den hitzarmena dela eta.

1. Euskaltzaindia eta CNRS-ren arteko hitzarmena

Joan den urteetan emeki jorratuz joan den bidea, une aldapatsuak iragan ondoren, bere jomugara heltzear dago.

CNRS erakundeak Otsailean egindako bikuraz geroztik, zeinetan Xarles Videgain lankideak parte hartu zuen, pausu fruitukorrak eman dira. Atlasgintzarako den GDR-9 taldeko arduradun berria, J. Le Dû jauna, Xavier Ravier lagun zuela, Euskal Herrian izan da Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiak antolaturiko bileretan. CNRSko bi nagusi horiez aparte Mari Karmen Garmendia anderea, Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusia izan da, Roman Berriozabal jauna eta Mirari Alberdi anderea, Hizkuntz Politikarako Idazkaritza horretako arduradunekin batera. Jean Haritschelhar euskaltzainburuak ordezkatu du Akademia, Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain, EHHA-ren zuzendari teknikoekin lagundurik. Bileron gai eta ardatza CNRS eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena izan da.

Bestalde hitzarmenaz gain GDR9 eta EHHAren arteko harremanak sendotu dira eta informatizazioaren arazoak bideratzeko EJEren lankidetzaz zurratu egin da.

2. Inkestagintza

Bere bizitasuna galdu gabe inkestagintza-lanek aurrera egin dute 1989an.

Aurreko urtean 36 inkesta burutu eta beste 39 egiten ihardun izan bada ere, aurten 25 baino ez dira osorik bukatu, beste 35 herritan egiten ari direlarik.

Inkesten gutxitze honen arrazoiaren artean ondoko hauek aipa genitzake:


1. Langilegoaren lan-dedikazioaren aldaketa.

1.1. Orain arte denbora osoz inkestak egiten ari izan den Isaac Atutxaren lan-dedikazioaren aldaketa.

1.2. Xarles Videgainek, bere tesia *Le vocabulaire de l'élevage en Pays d'Ozibarre. Contribution aux archives de l'oralité basque* bukatu asmoz, eskatutako lau hilabeteko lan-egoera berezia.

2. Inkestagileen bizitokitik urrenen izan diren inkesta-puntuetan aritu izan beharra lantaldea denbora luzez: Gipuzkoan biziz Nafarroan aritu direnak, Koro Seguroa, Izaskun Etxebeste, Berueta eta Igoan; edota Donamaria, Anitz,

Lekarozen. Baita Nafarroa Beherean eta Zuberoan aritu direnak: Gotzon Aurrekoetxea, bizkaitarra eta Xarles Videgain, lapurtarra, Arnegi, Luzaide, Altzai, Eskiulan eta abarretan.



Xarles Videgain eta Gotzon Aurrekoetxea.

3. Inkestagintzari buruzko zenbait datu

Bukatu berri den urtean honako aintzinamendua ezagutu du Atlasgintzak:

Herrialdea	Eginda		Egiten	Hasi gabe	Guztira
	89n	Orot.			
Bizkaia	5	29	3	4	36
Araba	0	0	0	1	1
Gipuzkoa	5	32	3	1	36
Nafarroa	9	15	12	0	27
Lapurdi	3	7	4	4	15
Nafarroa Beherea	1	5	9	4	18
Zuberoa	2	6	4	2	12
Guztira	25	94	35	16	145

Beraz, ondoko diagramen arauera inkestagintzako hiru urteetako emaitzak kopuru orokorretan eta oraingo egoera, portzentaiatan, ikus daiteke.

4. Inkestagintzaz kanpo egindako lanak

Inkestak bukatu ahala EHHAREN hurrengo urratsak aztertuz eta jorratuz dihardu EHHAREN lantaldeak.

Informatikak eskaintzen dituen aukeretatik abaiapuntu egokiena hautatzea da lehendabizi eman behar den urratsa. Jadanik EJEko J. Etxaburu teknikariarekin erregulariki prestaketa bilerak egiten hasiak dira. Era honetan sortu dira ondoko lanak: "EHHA. Sarrera orriaren eskema", "EHHA. Zeinu fonetikoak eta ikurrak, datu-base operatiborantz: oharra (barneko notak)", "EHHA. Datu-base operatiboak kontutan hartzeko arazo linguistikoak", "Alfabeto fonetikoaren kodaketa" eta abar. Aurre-lan edo prestakuntza hauek urtearen bukaera arte iraun dute.

Inkeston ondorio den zinten artxibaketa kontutan izanik EHHAKO zuzendaritza teknikoak "Euskararen fonoteka" txostena burutu du, Maiatzeko Euskaltzaindiaren bilkuran irakurria. Urrats berriak emateko tenorea iritsi dela aipatzen da: zinten kopiak egiteko sistema eta azpiegitura, artxiboaren baldintza fisikoei buruzko erabakiak hartzea, tresneriaren ezagutza eta eskuratzea, eta abar.

EHHAREN ondorioz zenbait hitzaldi eman da urtean zehar: Parisen, Sorbonan, "Pour une carte 'jardin'"; eta UEUK eraturik Gasteizen Xarles Videgainek eta Gotzon Aurrekoetxeak, UEUK antolatuz EHHA gaiaz Donostian.


ALE (Europako hizkuntz atlasa) delakorako ere Jacques Allièresek eskaturik egin dira inkesta batzu.

1. Eranskina
EHHA: Inkestagintza 1989.eko abenduaren 31ean


Herrialdea	Herria	Kodea	Amaituta	Egiten	
BIZKALIA	GETXO	1.1	*		
	LEIOA	1.2	*		
	ZOLLO	1.3		*	
	SONDIKA	1.4	*		
	LAUKIZ	1.5	*		
	LEMOIZ	1.6	*		
	ETXEBARRI	1.7	*		
	ZARATAMO	1.8	*		
	OROZKO	1.9	*		
	MUNGIA	1.10	*		
	ZEBERIO	1.11	*		
	BAKIO	1.12	*		
	FIKA	1.13	*		
	LARRABETZU	1.14	*		
	ARRIETA	1.15	*		
	LEMOA	1.16	*		
	DIMA	1.17	*		
	ZEANURI	1.18	*		
	ERRIGOITI	1.19	*		
	BERMEO	1.20	*		
	BUSTURIA	1.21	*		
	ZORNOTZA (EUBA)	1.22		*	
	MAÑARIA	1.23	*		
	OTXANDIO	1.24	*		
	IBARRURI	1.25	*		
	MENDATA	1.26	*		
	KORTEZUBI	1.27	*		
	ELANTXOBE	1.28	*		
	ELORRIO	1.31	*		
	GIZABURUAGA	1.33	*		
	LEKEITIO	1.34	*		
	ONDARROA	1.35		*	
	GIPUZKOA	ARRASATE	3.2	*	
		EIBAR	3.3		*
ARAOTZ		3.4	*		
OÑATI		3.5	*		
BERGARA		3.6	*		
ELGOIBAR		3.7	*		
MENDARO		3.8	*		
DEBA		3.9	*		
AZKOITIA		3.10	*		
URRETXU		3.11	*		
LEGAZPI		3.12	*		
ZEGAMA		3.13	*		
ITXASO		3.14	*		
ZESTOA (ARROA)		3.15	*		
AZPEITIA		3.16	*		
GETARIA		3.17	*		
BEIZAMA		3.18	*		
BEASAIN		3.19	*		
ATAUN		3.20	*		
ERREZIL		3.21	*		
ALA		3.22	*		
ORIO	3.23	*			
ASTEASU	3.24	*			

Herrialdea	Herria	Kodea	Amaituta	Egiten
GIPUZKOA	IKAZTEGIETA	3.25		*
	AMEZKETA	3.26	*	
	TOLOSA	3.27	*	
	DONOSTIA (Ibaeta)	3.28		*
	LASARTE	3.29	*	
	ANDOAIN	3.30	*	
	ELDUAIN	3.31	*	
	OREXA	3.32	*	
	HERNANI (Epele)	3.33	*	
	PASAIA	3.34	*	
	OLARTZUN	3.35	*	
HONDARRIBIA	3.35	*		
NAFARROA	URDIAIN	4.1	*	
	ARBIZU	4.2		*
	DORRAO	4.3		*
	GAINTZA	4.4	*	
	LEITZA	4.5	*	
	ETXARRI-ARANATZ	4.6		*
	ORDERIZ	4.7		*
	GOIZUETA	4.8	*	
	EZKURRA	4.9	*	
	BERUETE	4.10	*	
	IGOA	4.11		*
	ETXALEKU	4.12	*	
	XUARBE	4.13		*
	SUNBILLA	4.14	*	
	DONAMARIA	4.15	*	
	ETXALAR	4.16	*	
	ALKOTZ	4.17	*	
	ANITZ	4.18	*	
	LEKAROZ	4.19	*	
	ZUGARRAMURDI	4.20		*
	EUGI	4.21		*
ERRAZU	4.22	*		
ZILBITI	4.23		*	
MEZKIRITZ (Ureta)	4.24		*	
LUZAIDE	4.25	*		
ABAURREGAINA	4.26		*	
EAURTA	4.27		*	
LAPURDI	AZKAINA	5.3		*
	SARA	5.4	*	
	SENPERE	5.5	*	
	AMETZE	5.6	*	
	ARRANGOITZE	5.7	*	
	UZTARITZE	5.8		*
	MUGERRE	5.9	*	
	ITSASU	5.10	*	
	BESKOITZE	5.12		*
	HAZPARNE	5.13		*
MAKEA	5.14	*		

Herrialdea	Herria	Kodea	Amaituta	Egiten
NAFARROA BEHEREA	ALDUDE	6.1		*
	BIDARRAI	6.2		*
	BAIGORRI	6.3	*	
	ARNEGI	6.4		*
	UHARTE GARAZI	6.5		*
	IRISARRI	6.6		*
	ISTURITZE	6.7	*	
	EZTERENZUBI	6.10		*
	GAMARTE	6.11		*
	LANDIBARRE	6.12		*
	BEHORLEGI	6.13		*
	JUTSI	6.16	*	
	LARZABALE-ARROZE-ZIBITZE	6.17	*	
	BASTIDA	6.18	*	
	ZUBEROA	PAGOLA	7.1	*
URDIÑARBE		7.3		*
ALTZURUKU		7.4		*
LARRAÑE		7.5	*	
ALTZAI		7.6		*
SOMÛTA		7.7		*
SANTA-GRAZI		7.9	*	
ÛRRÛXTOI-LARRABLE		7.10	*	
BARKOXE		7.11	*	
ESKIULA		7.12	*	



(1. iruxkinen iruzkina)



(2. iruxkinen oraingo egoera)

2.4. ONOMASTIKA BATZORDEA

Onomastika Batzordeak bere lana jarraitu du urtean zehar, dagozkion zereginak aurrera atereaz. Hamar bilkura egin ditu urte honetan: sei Iruñeko Ordezkaritzan, hiru Gasteizkoan eta bat, azkena, Durangoko Udaletxean.

Batzordearen eginkizun nagusia Nafarroako Gobernuak aginduriko Herri Izendegia izan da. Jakina denez, lehendik zetorren lana zen. Donostian, Apirilak 28, 1989, birretsi du Euskaltzaindiaren orobatzarreak azken parte, hots, "erdal eremua" deitua. Hirugarren eremu honetan sartzen dira Zangozako merinaldeko hegoaldeko zerrendak; Lizarrerriko erdi, eki eta mendebaldeko hiru zerrendak; Erriberri merinaldekoa, Izarbe ibarra erantsirik; eta azkenik, Tuterako merinaldea.

Birrespen honen ondoren, argitarapena prestatzeari ekin dio Batzordeak, lekukotasunak, bibliografia, hizkuntz alorreko oharra e.a. bilduz. Material guztia taiutu eta antolaturik, sarrera bat ondu dute Jose Maria Jimeno Jurio eta Patxi Salaberri batzordekideek, Endrike Knörr batzordeburuak egindako zirriborroaren gainean. Abenduko bilkuran onartu da testua. Argitarapena Nafarroako Gobernuak egingo du.

Bigarren lan nagusia Euskal Mendigoizaleen Federakundeak eskaturiko mendigailurren izendegia izan da. Federakundeak bere liburuskaren argitarapen berria egin nahi duenez, Euskaltzaindira jo zuen, izen-lerrokadaz eritzia eman zezan. Lan hau bost zerrendatan banatu da: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta mugaz handiko aldea. Denetara 642 mendi agertuko dira izendegi berrian.

Erdi Aroko Toponimiaren egitasmoa, hots, 1200. urtera arte agerturiko leku-izenen bilketa proiektua, M. Angeles Libano irakasle anderearen zuzendaritzapean Gasteizko Ordezkaritzan egiten ari zena, burutzear dago, bi urteko lanaren ondoren.

Aurreko urteetan bezalaxe, Udalek eskaturiko erizpenak eman dira. Hona aurtengoak: Artziniega, Igantzi, Errezil, Lemoiz eta Aiara.

Bestalde, Usurbil, Bilbo eta Andoaingo toponimia bilketa lanetarako epaimahaikide eta aholkulari izan dira Batzordeko zenbait. Orobat, Eusko Jaur-larritza, Nafarroako Gobernu eta Foru Diputazioen itaunei erantzun zaie.

Hiriko kale-izenei buruzko batzorde bat eratu berri da Gasteizko Udalean. Euskaltzaindiak bere partaidetza izan du haste-hastetik. Toloñoko mendilerroaz, Ganboa eta Billerle/Legutianoko aintzirez ere aditzera eman du Batzor-deak bere iritzia.

1990.eko Irailean Lizarran egingo diren III. Onomastika Jardunaldiak prestatzen hasia da. Akademi Batzordea eta Antolakizun Batzordea osatu dira. Euskaltzaindiaren oro batzarreak, Bilbon, Azaroaren 24ean, egindako bilkuran onartu dituelarik.

Argitarapenei dagozkenez, Jose Maria Jimeno Jurioren *Toponomia de la Cuenca de Pamplona. Cendea de Olza*, eta Gerardo Lopez de Guereñu Galarragaren *Toponomia alavesa, seguido de Mortuorios o despoblados y Pueblos alaveses* deritzon liburu gotorra, Onomasticon Vasconiae bildumako 3.a eta 5.a plazaratu dira aurten. I Onomastika Jardunaldietako hitzaldiak biltzen dituen liburua, hori bezain handia, 4.a, berriz, atzeraturik dago, baina 1990. urtean argitaratzekotan da. Bidean da, halaber, Itzako zendeako toponimia biltzen duen liburua, Jimeno Jurio jaunak egina. Nahiz eta ez Euskaltzaindiak argitaratu, aipa daiteke Jose Antonio Gonzalez Salazar batzordekidak aurten *Toponomia menor de Añana* izeneko liburua argitaratu duela, Arabako gaurko toponimia sortako seigarrena.

Nafarroako Herri Izendegia prestatze, aztertze, onartze eta idazketarako Batzordeak egin dituen bilkuren leku eta datak:

Prestaketa:

1987-9-8	Iruñeko Ordezkaritza
1987-9-24	Urduñako Udaletxea

Azterketa eta onarpena:

1987-10-25	Leitzako Udaletxea
1987-12-7	Durangoko Udaletxea
1988-1-4	Iruñeko Ordezkaritza
1988-3-14	Iruñeko Ordezkaritza
1988-5-13	Iruñeko Ordezkaritza
1988-6-20	Iruñeko Ordezkaritza
1988-7-29	Oiartzungo Udaletxea
1988-9-3	Uztaritzeko Udaletxea
1988-10-1	Gernikako Udaletxea
1988-11-11	Iruñeko Ordezkaritza
1988-12-19	Lizarrako Udaletxea
1989-1-3	Iruñeko Ordezkaritza
1989-2-16, 17	Iruñeko Ordezkaritza
1989-3-17	Iruñeko Ordezkaritza

Erabateko idazketa:

1989-5-8	Iruñeko Ordezkaritza
1989-6-22	Gasteiko Ordezkaritza
1989-7-27	Gasteizko Ordezkaritza
1989-9-25	Iruñeko Ordezkaritza
1989-11-3	Gasteizko Ordezkaritza
1989-12-9	Durangoko Udaletxea

2.5. LITERATURA BATZORDEA

Joan den urteko Otsailean Gipuzkoako Lazkao herrian izandako VI. Barne Jardunaldietan, lehenagoko Literatura eta Herri Literatura Batzorde biak, baten lotzea erabaki zen, nahiz eta bakoitza azpibatzerde autonomoetan arituko aurrerantzean.

Gainera, langintza biok Iker Sailera aldatzea erabaki zen, zeren eta zentzu horretako lanean dihardutelako eta jagote arloak bere esparru propioa izango baitu, berarizko batzorde baten bidez. Azpibatzerdetariko bat, literatura klasikoaz arituko litzateke; bigarrena, herri literaturaz, bertsolaritza, ahozko literatura, eta abar; hirugarren bat, sartzeara ere erabaki delarik, gaurko literaturaz arduratzeko. Azken hau, ernaldi unean dago. Batzorde osoaren buru bezala, Juan Mari Lekuona euskaltzaina izendatu da eta azpibatzerdeez, Federico Krutwig euskaltzaina arduratuko da Klasikoan; Antonio Zavala, Herri Literaturakoan eta martxan jartzeko hirugarrenaz, Juan Mari Lekuona bera arduratuko da.

2.5.1. Literatura klasikoa Azpibatzerdea

Leizarragak egindako Testamentu Berriaren itzulpenaren ikerketa aurre-ra eramaitekotz, iaz hasirik zen Jaundone Johannesen Ebangelio ikertzeari jarraiki zaio, esan nahi bait da, hirugarren kapitulutik hamazazpigarren kapituluraino aztertu da. Honen egiteko taldekideen artean lana banandu zen.

Honetara bada Leizarragarren lana ikertzekotz honela banandu ziren ekintzak:

– Jesus Lavinek: "Testamentu Berriaren Graikarazko barianteak" ikertuko zituen, Leizarragaren itzulpenetik hurbilen legoen testua fitxatzeko eta gero nola aldatuz joan den ikustearren.

– Jon Gotzon Etxebarriak: "Vulgata izeneko itzulpen latinoa" ikertuko zuen.

– Manu Ertzillak: "Duvoisinek egin zuen Itzulpen Vulgatatikoa", bai graikarazko testuarekin, bai Leizarragarenarekin erkatuko zuen.

– Mikel Agirreazkuenagak, Manu Ertzillaren laguntzarekin: "Martin Lutherek egin zuen alemanarazko itzulpena" eta "Bible de Genève izeneko frantses itzulpen protestanta" ikertuko zituen, Leizarragak eduki ukan zuen bideak gonparatzekotz.

– Federiko Krutwigek: "Bibliari buruzko problema kulturalak" eta "Palestinako juduismoari buruzko arazoak". "Ebangelioak idatzi ziren epokeko Sekta Gnôstikoan eta Hermetismoaren kuestioneak" ikertuko zituen. Huntaz gain, graikara zaharrak (koinéak) euskararen gainean eduki ukan duen eragina ere ikertuko zuen.

– Juan Jose Pujanak: “Jon Doni Johanesen originalak eta itzulpenak”. “Ebangelio horren eta hiru Sinoptikoen arteko diferentziak”.

– Afonso Irigoyenek: “Leizarragaren Lapurtar Klasikoa ta Bizkaierari buruzko gaiak” tratatuko zituen.

Ikertzapen hauek egiten zirela bestelako zeharkako gai unibertsalagoak ere aztertu izan dira, zeinen artean aipa bait daitezke, Federiko Krutwig azpibatzen buruak bilkuretara ekarritako lan hauek:

– “Sobre afirmaciones objetivas y subjetivas en griego y en vascuence”, y sobre “el optativo”.

– “Rhematologia”: Denbora ulertzeko forma latinoaren eta forma euskal-helenaoren arteko bereizgo eta diferentziak.

– “Sobre el verbo griego”. “Notas sobre cómo traducir las formas verbales griegas al euskara”. “Elokuzio graiko eta latinoaren arteko diferentzia funtsezkoak gain euskara klasikoan eta euskalkietan zer gertatzen den” arakatuz.

– “En torno al evangelio de San Juan: Ea Joanes pertsona baten izena den, ala nolabait pertsonaia batzuren kolektibo bat bezala entelegatu behar den”.

Hontaz gain, Johanesen Ebangelioaren itzulpen Leizarragarena grafia berriaz ezarririk izan da.

2.5.2. Herri Literatura Azpibatzen

Bere izenak dioenez, herri literaturaren eremu zabala: kontapoesia, bertsolaritza, ipuinak, antzerkia, esaera zaharrak, pastoralak, asmakizunak, herri-narratiba, koplak, eta abar du langai, hiru norabidetan izan ere: ikerketa, bilketa eta zabalkundea.

Aurreko urteetan egindakoari jarraiki, 1989ko egitasmoa ere aipatutako hiru arlo horietan gauzatu zen eta honako ekintza hauetan zehaztu:

1. Ikerketa arloan:

1.1. Kontapoesiari buruzko Jardunaldien eraketa.

2. Bilketa arloan:

2.1. Bertsolaritza Artxiboaren nondik-norakoaren azterketa.

2.2. “Xenpelar” Sariaren eraketa.

3. Zabalkunde arloan:

3.1. 1990ean argitaratzeko aurreprestatzea.

Hona hemen, ekintza bakoitzaren xedea, eta nola eta noiz gauzatu den.

Herri Literaturari buruzko I. Jardunaldiak: Kontapoesiaz

a) Xedek. Euskal kontapoesiaren eremua sakontzea eta inguruko herrietako kontapoesiaren arloan lanean ari diren jakitunekiko harremanak estutu eta egiten ari direnaren eta nola ari direnaren: metodologia, baliabideak, eta besteren berri eskuratzea.

b) Jardunaldiak. Nola 1988ko hileroko bileretan hala 1989ko lehen lau hilabetekoetan Jardunaldien prestaketan jardun ondoren, Billabonako Kultur Etxean izan dira Herri Literaturari buruzko I. Jardunaldiak, Maiatzaren 26an eta 27an, Juan Antonio Ubillosen heriotzearen bigarren mendeurrena zela eta, Euskaltzaindiak eratutako ospakizunen barnean. Denera, bederatzi saio nagusik osatu dituzte. Kontapoesiari buruzko Jardunaldiak: zortzi hitzaldik eta kantaldi batek.

Hitzaldiak. Hona hemen banan-banan, zortzi hitzaldien izenburuak eta hitzaldiak:

1. "Euskal kontapoesiaren bilduma": Antonio Zavala, euskaltzain eta Herri Literatura batzordeburua.

2. "Últimas investigaciones sobre el Romancero catalán": Salvador Reves, Tarragonako Institutuko irakaslea eta "Poesía catalana" bilduma taldearen sortzaile eta zuzendaria.

3. "Euskal kontapoesiaren modulo metrikoak hegoaldeko usuarioan": Juan Mari Lekuona, euskaltzainburuordea eta Literatura batzordeburua.

4. "Bilingüismo en el Romancero gallego": Jose Luis Forneiro, "Universidad Complutense"ko "Seminario Menéndez Pidal" delakoaren lankidea.

5. "La música en el Romancero": Joaquín Díaz, Romanceroaren ikerle, musikologo eta Gaztelako herrimusika-biltzaile eta kantaria.

6. "Leku eta jendeak XV. mendeko zuberotar eresietan": Txomin Peillen, euskaltzaina eta Paueko Unibertsitateko irakaslea.

7. "La chanson narrative au Béarn": Roger Larrouy, biarnotar ikerlea.

8. "La balada vasca y la balada europea: perspectivas de estudio": Antonio Cid, "Universidad Complutense"ko "Seminario Menéndez Pidal" delakoaren kidea.

Hitzaldi bakoitzaren ondoren, galdera eta eztabaidekin aberasgarria gertatu da Jardunaldietara inguratutako lagunen -50en bat guztira- partaidetza.

Kantaldia. Laskibar Hotelean Maiatzaren 26an gauetz bikain erakutsi zuten Bedaxagar eta Martikorena kantariak euskal kontapoesiaren xarma eta lilura.

c) Aurrera begira. Aurtengo Jardunaldiak ebaluatu ondoren, 1991n izango diren II.en nondik-norako nagusiak ere erabaki dira; baita gaia aukeratu ere: herri-narratibagintza, arlo honetan adituak direnekin harremanetan jarriz.

Bertsolaritzaren Artxiboaren nondik-norakoaren azterketa

a) Xedea. Orain arte batean eta bestean jasotako bertso eta bertso-bildumen berri eta aurrerantzean jaso daitezkeenena batean bilduko duen Artxiboaren sortzxea aztertu eta bideratzea.

b) Aurten egina. Besteak beste, egin da bilerarik Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Euskara Arazoetako zuzendari den Josu Legarretarekin eta eman da aurrerapausorik, datorren urtean lehen urratsetan gauza daitekeena.

"Xenpelar" Sariaren eratzea

Bi urtez behin bezala, eratu da aurten ere bertso-jartzaileentzako "Xenpelar" Saria, honako hauek izan direlarik sarituak: Jose Antonio Gesalaga "Xaldubi", Aitona zaharra lanagatik; 2. Xanti Zabala "Lezo", Gogoetak lanagatik; eta 3. Antton Kazabon, Esmatzerakoan lanagatik. Epaimahaia: Juan Mari Lekuona, Jose Mari Aranalde eta Antton Aranburuk osatu dute.

2.5.3. Literatura sariketak

Zuzenean berak edo laguntza mailan, literatura lehiaketetan parte hartzen du Euskaltzaindiak.

1989an hurrengook azpimarra daitezke, alegia:

- Bizkaiko Aurrezki Kutxak babestutako sariak direla eta, epaimahaikide: Piarres Charriton, Jon Kortazar eta Jose Antonio Mujika izan dira; irabazle: Txomin Peillen *Kristina Bolsward* eleberriarekin. "Mikel Zarate" saio saria hutsik gertatu da.

– Eusko Jaurlaritzak antolaturiko “Euskal Letren Merezimendua” sariketarako, Patxi Altuna izan da epaimahaiko eta Lino Akesolo irabazle.

– “Euskadi” Literatur sarirako, Endrike Knörr.

– Gobernu berak babesturiko “Literatura Lanak Sortarazteko lehiaketa” erabakitzeke ordezkari, Juan Mari Lekuona.

– Gobernu Zentralak antolaturiko sariketa edo lehiaketan jaun-andre hauek ordezkatu dute Euskaltzaindia:

Alfonso Irigoyenek, “Premio Nacional de las Letras Españolas”;

Juan Mari Lekuonak, “Premio Nacional de Poesía”;

Ibon Sarasolak, “Premio Nacional de Narrativa”. Sari hau euskaldun batek, Bernardo Atxagak, jaso duelarik, *Obabakoak* liburuaz.

Patxi Altunak, “Premio Nacional de Ensayo”;

Endrike Knörr, “Premio Nacional de Traducción”;

Pakita Arregik, “Premio Nacional de Literatura Infantil y Juvenil”; eta

Jon Kortazarrek, “Concesión de Ayudas a la Creación Literaria”.

– Gipuzkoako Aurrezki Kutxak, Literatura Unibertsaleko Obren euskaritzea saritzeko, “Orixe” lehiaketarako Patxi Altuna.

– Udal zenbaitek antolaturiko lehiaketetan:

- Zarauzkoak, “Haur eta gazteentzako VIII. Lizardi” Literatur sarirako, Jose Antonio Mujika.

- “Errenteria hiriko pertsonaiari buruzko idazlan” lehiaketarako, Juan Maria Lekuona.

- Errenterian jarritako “Koldo Mitxelena I. Saio” sariketarako, Patxi Altuna.

- Barañain (Nafarroa) “Narrazio Laburreko I. lehiaketarako”, Andres Iñigo.

- Andoaingoak antolatutako “Saiakera laburrak idazteko” epaimahaikide, Patxi Altuna.

3. JAGON Saila



Sail honek beste egitura bat hartu du, joan den Otsailean Euskaltzaindiak bere VI. Barne Jardunaldiak Lazkaon egin ondoren. Bertan Literatura Batzordea, Iker Sailera pasatzea erabakiz gainera, Jagon Saileko gaiak propioki batzorde bakarraren esku uztea onartu baita.

Horretarako sailkide hauek izendatu ziren: Juan San Martin, Gipuzkoako ordezkaria, Jagon sailburu; kideak: Endrike Knörr, Arabako ordezkaria: Jose Maria Satrustegi, Nafarroako ordezkaria; Piarres Charritton, Iparraldeko ordezkaria; eta Jose Antonio Arana Martija eta Jose Luis Lizundia, Bilboko Egoitzatik, azken hau saileko idazkari izango delarik. Martxoan, Eusko Legebiltzarrak, Juan San Martin "Ararteko" izendatu duelarik, sailburutza eta Gipuzkoako Ordezkaritza utzi behar izan ditu. Haren ordezkari, Endrike Knörr Jagon sailburu izendatu da eta Juan Mari Lekuona, sailkide, Gipuzkoako Ordezkari bezala.

Hiru lan-bilkura egin ditu Jagon Sailak, lehena, Ekainaren 22an, Gasteizen; bigarrena, Irailaren 28an, Donostian; eta hirugarrena, Abenduaren 28an, Iruñean.

Batzorde legez eraikuntza egikeran, Endrike Knörr sailburuak egindako proposamenak onartu ziren, ildo nagusiak hauek izanik: Euskal Herriaren egungo hiru egoera politikoak kontutuan izanik, eremu bakoitzean hizkuntzaren esku-bideak zaintzea; euskararen erabilpen ona jagotea, bai giza komunikabideetan, telebistan bereziki, eta bai bestelakoetan, trenbide, aireko eta abarretan; berdin, euskal leku izen eta bide seinalizapenak zehazki jartzen.

Langintza horietan aritu da urtean zehar gestio garrantzitsuenetatik, hauek aipatu daitezkelarik:

– Justizia Administrazioari auzitegi alderdi guztietan euskara zerbitzuak edo/eta itzultzaileak sortzea.

– Renfe eta Iberia enpresei, aireportu eta geltokietan euskarazko mezu eta adierazpenak jatorri jartzea.

– Giza komunikabideetan, EGAREN tituluarekin bakarrik baliatzea ahulegi dela adieraztea.

– Telenorte eta *El Correo Español-El Pueblo Vasco* egunkarian euskara sartzea edo ugaritzea.

– Euskarazko toki izen zenbait jagotea, Iparraldean, Araban eta Gipuzkoan.


– “Osasuna” ekipoaren futbol zelaian abozgailu eta idazkietan euskara erabiltzea.

– Santandereko Universidad Internacional Menéndez Pelayo delakoan, euskara eztabaidatu zen era, Euskal Akademia baztertuz, salatzea.

– Euskal Autonomi Erkidego eta Akitaniaren artean sort daitezkeen hitzarmenetan, hizkuntzarekiko arta izatea.

– Valenciako “Acció Cultural”, katalan telebistako arazoaz, atxikimendua agertzea.

4. Akademi Zerbitzuak



4.1. ADMINISTRALGOA ETA ORDEZKARITZAK

Eremu hau, erakunde eta jendearekiko harreman eta beste biderapen arazoei arta eta irteera ematen saiatzen da. Orokorki Egoitzatik eta bereziki herrialde batekoak direnean, dagokion Ordezkaritzatik.

Erakunde akademikoei buruzkoak izan dira, batzu batez ere, Estatu eremuko "Real Academia Española de la Lengua", "Institut d'Estudis Catalans", "Real Academia de la Lengua Galega" eta "Academia de la Llingua Asturiana"-rekin. Bestelako unibertsital edo/eta kultura erakundeekin ere elkarlan, harreman, trukaketa, informazio eta abar ugari izan dira.

Herri aginteen administral erakundeekiko harremanek, garrantzi handia dute Euskaltzaindiaren baliabide eta eginkizunetarako. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkari Nagusi den Mari Karmen Garmendia eta beronen teknikariekin izandakoak dira emankorrenak, bera baita Autonomi Erakunde amankomunen aginduz, horretarako propioki izendatua. Nafarroako Foru Diputazio edo Gobernuarekin Euskaltzaindiak dituen harremanetarako, hizkuntzarekiko solaskide ofizial bat izan dute Hizkuntz Politikarako Zuzendari Nagusi izendatua den Estebe Petrizan jauna. Beste hiru Foru Diputazio eta zenbait udalekin ere harreman eta argitasun eskari ugari izan ditu. Gobernu Zentraleko Hezkuntz eta Kultur Ministeritzekin ere harreman zuzen eta emankorrak izan dira.

Idazkariordetzari dagokionetik, urtean zehar egindako jardunaldi, bilkura, ospakizun eta Euskaltzaindiaren eginkizun ororen plangintza, ibilpide eta eraketa hasi eta bururatu ditu, batzutan zuzenki eta gehienetan, Ekonomi, Biblioteka eta Argitarapenen eragileen eta administrarien laguntza eskergaz baliaturik. Batzordeen eta programa nagusien langintza ere, bertatik koordinatu da.

Jendearekiko kontsulta, itaun eta posta harremanak, egunetik egunera ugalduta, hor sartzan direlarik, egoera, euskararekiko ikerketa, normalizapen, erakundetze eta beste sailkatu ezinezko puntu asko. Euskaltzaindiaren zeregin akademikoez, funtzionamenduez eta batzordeez, argibide ugari eman da, adibidez: bulegoetara eta Erriberako Bibliotekara, IRALE, HABE eta beste zenbait eskola eta euskaltegitatik taldeak hurbildu dira, beraien hizkuntzarekiko atxikimendu eta jakin nahiak agertuz. Euskal Herritik, zein atzerritik etorritakoek ere, lan premiatsua suposatzen dute Egoitzarentzat eta baita Ordezkaritzarentzat ere, azken hauei Arautegiko 34. artikulua egotzen bai die batipat eginkizun hau.

Bizkaiko Foru Diputazioak, Abenduaren 26an, enkante bidez, erabaki du "Dragados y Construcciones" enpresari 225.645.198 pesetetan Bilboko Plaza Barriko Egoitza berriaren lanak adjudikatzea. Biharamunean, Gernikako Junte-txean, Batzar Nagusiek onartu dute 1990. urteari dagokion kopurua 100 milioi pesetatakoa. Foru Administaritza honek 1991ko udaberrian inauguratzeko asmoa du.

Ordezkaritzek beraien lan eta harreman zerbitzuetarako bulego erosoak dituzte Gasteizen eta Iruñean, Foru Administrazioei esker. Donostiako Ordezkaritza ostera, Irailetik toki berrian dago, Gipuzkoako Diputazioak emandako solairu batetan, hiriburuko alderdi ederrenetarikoa, Hernani kaleko 15. zenbakian, hain zuzen.

4.2. AZKUE BIBLIOTEKA

1. EGITURA

Lazkaon egindako VI. Barne Jardunaldietan, Pello Salaburu Etxeberria euskaltzaina izan da "Azkue Biblioteka"-n batzordeburu hautatua, lehenagoko beste batzordekideek jarraitzen dutelarik. Bibliotekaren ardurua eta batzordearen idazkaritza Jose Antonio Arana Martija euskaltzainak darama, baina Bizkaiko Diputazioan Urtarrilaren 19an kargu aldaketa egin zenetik, diruzaina eta Campion-Broussain Elkartearen gerentea ere denez, lana ugaldu zaio. Nerea Altuna eta Josune Olabarria sekretarien lan baliotsuari esker, Bibliotekaren zeregin guztiak bete ahal izan dira.

Batzordeak hiru bilera egin ditu, lehena Alfonso Irigoyen batzordeburu zelarik Otsailaren 10ean eta beste biak Pello Salaburu batzordeburu berriarekin Uztailaren 21ean eta Abenduaren 22an.

2. LAN ARRUNTAK

1989an Bibliotekak izan dituen liburu eta aldizkari sarrerak 7.164 izan dira, erosiak eta harpidetzaz lortutakoak batzuz, eta besteak dohainik edo trukez koadroan azaltzen den legez:

Urtea	Erosiak harpidetzaz		Dohainik trukez		Guztira	
	aleak	balioa pezetatan	aleak	balioa pezetatan	aleak	balioa pezetatan
1985	1.640		3.516		5.156	
1986	1.376		4.682		6.058	
1987	1.590	1.735.140	6.074	1.773.965	7.665	3.489.105
1988	753	1.448.938	4.675	1.819.635	5.428	3.268.573
1989	3.158	4.457.911	4.006	1.545.154	7.164	6.003.065

Sarrera arruntetatik aparte, eskuratze edo erosketa bereziak izan ditu aurten Bibliotekak, hauek azpimarra daitezkelarik:

– Arnauld Oihenart-en *Notitia Utriusque Vasconiae* liburuaren lehen edizioa.

– Zigandatarren liburutegia 2.409 alez hornitua, Maiatzaren 17an, 1.850.000 pezetatan erositia.

– *La Gaceta del Norte* egunkariaren bilduma osoa, paperean.

– Bonaparte Printzearen eskuizkribu eta euskal argitalpenen mikrofilmak.

– *Euzkadi* egunkariaren bilduma osoa, mikrofilmaturik.

– Iberduerotik eskuratutako Imanol Berriatuaren artxiboa.

Azken urteotan unibertsital maila duten ikerleentzat soilik zabaldua da Biblioteka eta hauetariko mila inguru izan dira aurten, hauentzat 25.000 fotokopia edo egin direlarik. IRALE, HABE eta AEK-ko taldeak ere izan dira Biblioteka ikustera etorri direnak. Bisitari ospetsuen artean aipatu behar dira: Estatu Batuetatik, Willian Douglass; Tel-Aviv-eko Unibertsitatetik, Itzhac David; Zelanda Berritik, maori hizkuntza bultzatzen ari den Jeffrei Waite; Galiziako Akademiatik, Constantino Garcia; British Library-tik Geoffrey West, 1991ean Bonaparteri omenaldi bat Londresen prestatzeko asmotan; eta Renoko Basque Studies Program-eko bibliotekari den Ellen H. Brow.

Trukezko zerbitzuak ere lan ugari ematen du, 110 tokitara igortzen baitira Euskaltzaindiak argitaratzen dituen liburuak.

Bibliotekan sartzen diren aldizkari eta egunkarietatik Euskaltzaindia, euskaltzainei eta euskarari buruzko aipamenekin txostenak egiten dira, kasu batzutan datu biografikoak osatzeko eta bestetan dagokien batzordeei emateko.

Hemeroteka on bat osotzeak ere egunkari eta aldizkarien ale guztiak lortzeko ardurak lana eskatzen du, koadernatu orduko ondo begiratu behar baitira bildumak hutsunerik izan ez dadin.

3. INSTALAZIOAK

Fonoteka egoki bat ere jartzea erabaki zuen Euskaltzaindiak dauden eta Atlasekoek ekarriko dituzten zintak, diskak eta abar taiuz gordetzeko. Esan behar da Vienatik ekarri ziren Trebischen zintak oraingo fonotekan sarturik daudela.

Tresneriari dagokionez, Harris 115-AD faxa jarri zen Bibliotekan Maiatzaren 24ean, eta Sharp SF-8800 fotokopiagailu berria Azaroaren 3an.

4. LIBURU ETA KATALOGOEN PRESTAKETA ETA ERAKUSKETAK

Euskaltzaindiaren eta beste batzuren liburuak argitaratzeko laguntza eman du aurten Bibliotekak. Azkueren *Latsibi, 1988.eko Oroit-idazkia* eta Aginteeekin sinatu zen Hitzarmenaren liburuxka Bibliotekan maketatu dira, azken honetako testuak bertan prestatuak izan direlarik. Webster-en *Basque Legends* liburua gaztelaniaz argitaratzeko ere Bibliotekak prestatu du hitzaurrea eta Miraguano argitaldarearekin edizioa paratu.

Bonaparteren eskuizkribu eta argitarapenen Katalogoa prestatu eta kaleratu du Bibliotekak *Katalogoak/Catálogos* deritzon sail berri bat sortuz. Juan Carlos Gerraren Liburutegi eta Artxiboaren Katalogoa ere prestatu du, saileko 2.alea izango eta laster kaleratuko da.

Bizkaiko Foru Bibliotekan desagertutzat ematen diren hainbat liburu eta gure Bibliotekan ditugunak, Clotilde Olan bibliotekariaren eskariz, bertara eramanez izan dira fotokopiak ateratzeko.

Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira Museoak prestatu duen Delmas inprimatzaileen erakusketarako liburu batzu utzi ditu Bibliotekak. Eta Gernikan Jon Gotzon Etxebarria urgazlearen lanekin antolatu den erakusketarako ere laguntza eman du.

5. HARREMANAK

Instituzioekin dituen ohizko harremanetatik aparte, aurten sendotu dira Getxoko *Harriluze* Elkarteak sortu duen "Biblioteca Vasco-Americana" delakoa-rekin. Madrilera "Biblioteca Nacional" delako Patronatoaren bileran parte hartu du bibliotekariak Uztailaren 10ean, Euskaltzaindiaren ordezkaria izanik.

4.3. ARGITARAPENAK

Sail honek azpisail bi ditu, hots:

4.3.1. Argitarapenen Batzordea.

4.3.2. Argitarapenen Banaketa Zerbitzua.


4.3.1. Argitarapenen batzordea

Euskaltzaindiak, 1989. urtean, Batzorde honen ardurapean, hurrengo liburukiok argitaratu ditu, alegia:

1. *Euskera* agerkaria (1988, 2). Euskal Katedraren mendeurrena. *Iparragirre* liburuaren aurkezpena. *Toponimia de la cuenca de Pamplona*. *Cen-dea de Galar* liburuaren aurkezpena. *Christaubaren icasbidea edo doctrina cristiana* liburuaren aurkezpena. "Stress and pitch" txostena. "Euskal konpleti-batzaileak: bilduma baterako". "Los orígenes de la Academia de la Lengua Vasca en el epistolario de D. Carmelo Echegaray". "OXOBiren mendeurrena". "Andrés de Poza en Flandes: una etapa de su vida casi desconocida". "Euskal Herriko Hizkuntz Atlasgintza 1987an". "Gipuzkoako euskal toponimiazko mate-rialeak". "Nafarroako leku izenen euskarazko formez". "Izen geografikoak". "Testamentu irekirako ereduaren bidean".

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actos de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



Euskera XXXIV (2. aldia)
(1989, 1)
34
BILBO

2. *Euskera* agerkaria (1989, 1). Juan Mari Lekuona Euskaltzaindian sartzea. "ORIXEren mendeurrena". "*Euskal Lexiko etnografikoaren* ikuspegi txiki-labur bat". "Euskal filologiazkoak, nahas-mahas". "Gazteleraren *Como* juntagailu polisemikoak euskararen baitan izan ditzakeen ordezkoen problematika: 1. Subordinazioaren esparrua". "*Ez ukatzailea euskal tradizioaren bidetik noiz eta nola*". "Basque *on* et latin *bonum*". "Vasco doñu, 'aire melodía', y el rumano cirilógrafo". "Quelques comparaisons Kharthvélo-basques du domaine du lexique de l'élevage". "Euskara batua: aitzindariak eta beste". "Vicente Amezaga Arestiri omenaldia". "Encuentro de los tres Durangos". "Zumarraga Mexicoko Azpezpikuaren gutuna Urti Abendaiñori 1547an idatzia".

3. Euskararen Lekukoak 15. zenbakiduna: *Latsibi*, Resurrección Maria Azkue. Mirari Alberdik paratua. Labayru Ikastegiak eta Euskaltzaindiak koedizioz argitaraturiko eleberria. Orain arte inoiz argitaratu gabekoa.



Latsibiren ilustrazio bat.

4. *Onomasticon Vasconiae 3: Toponomia de la cuenca de Pamplona. Cendea de Olza.* Jose Mari Jimeno Juriok prestatua. Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin argitaratua.

5. *Onomasticon Vasconiae 5: Toponimia alavesa, seguido de Mortuorios o despoblados y Pueblos alaveses.* Gerardo Lopez de Gereñuk paratua. Vitoria/Gasteiz Udalaren babespean argitaratua.

6. *Platon VI.* Iokin Zaitegiren itzulpen lana. Karmida, Ipia nagusia, Laka eta Lisi-ren elkarriketak.

7. *Platon III.* (Berrargitarapena). Iokin Zaitegiren itzulpen lana. Eutrifon eta Sokrate-ren apologiarekiko elkarriketak.

8. *Euskalerraren Yakintza.* (Berrargitarapena), Resurrección Maria Azkue. Espasa-Calpe eta Euskaltzaindiak koedizioz argitaratua. Banco Bilbao Vizcaya delakoaren babespean publikatua.




Ezkerretatik eskumatara: J. M. Satrustegi Euskaltzaindiko idazkaria, Fco. Perez Garzon Banco Bilbao Vizcayaren erakunde harremanetako arduraduna, Jean Haritschelhar euskaltzainburua eta Jose Luis Lechosa Espasa-Calpe argitaletzeko zuzendari nagusia.

9. *Christau doctriñ berri-ecarlea.* Fray Juan Antonio Ubillos, faksimil erara berrargitaratua; berau, 1785.urtean Ubillosek idatzia.

10. Luis Luciano Bonaparte: *Eskuizkribuak-argitarapena*. Carlos González Etxegarai eta Jose Antonio Arana Martijak paratua. Bigarren argitarapena. Azkue Biblioteka-k prestatuturiko *Katalogo* sailean lehen.

11. *Argitarapenen Katalogoa 1989-90*. Euskaltzaindiak orain arte kale-ratu dituen lanen zehaztasunak dakartzan liburukia.



12. *Euskaltzaindiaren Oroit-idazkia (1988)*. Erakundeak 1988. urtean buruturiko egintza, lanen zehaztasunak eta azalpenak dakartzan argitarapena.

4.3.2. Argitarapenen banaketa zerbitzua

Euskera agerkaria bostehun abonatuari banatzen zaie, harpidetza berriren batzu egin direlarik; hauen artean, Irakaskuntza, Erakunde eta Udal zenbait nabarmenduz. Harpidetza gutxitu egin da beraz, lehengo kopuruak mantendu irauten du.

Urtean zehar 16.200 ale saldu ditu eta dohain edo trukean 2.550 ale banatu: Erakunde, Unibertsitate, ikastetxe, kultura elkarte, aurkezpen, Akademi batzordekide eta abar. Banaketa, gehien bat, Euskal Herrian zehar egiten bada ere, atzerriko eskariak gehituz doaz. Tarteka banaketa propiagoa egiten da, hiztegi, onomastika, literatura, Euskararen Lekuko, Iker Sailekoak eta Euskaltzaindiaren beste sail berezietakoak.



Euskaltzaindiaren gordailua Etxebarrin (Bizkaia).

Durangoko Azoka. Ohi denez, Durangon, Abenduaren 7, 8, 9 eta 10ean egindako XXIV. Euskal Liburu Azoka Nagusian izan da Euskaltzaindiaren zerbitzu hau. Azoka honetan 350 bat liburu saldu dituelarik.

Liber'89, alegia, "VII Salón Internacional del Libro" delakoan, Madrilen, Ekainaren 27tik Uztailaren 2ra bitartean, "Recinto Ferial de la Casa del Campo" deritzon Erakustazokan IFEMA delakoak antolaturik eta hurrengo hauen babesaz: Ministerio de Cultura; Dirección General del Libro y Bibliotecas; Instituto Español de Comercio Exterior; Comunidad de Madrid, Consejería de Economía; Ayuntamiento de Madrid; Quinto Centenario; Asociación de Editores de Madrid. Eusko Jaurlaritzak, "Euskadi" izeneko stand bakarra jarri du eta horretara joateko gonbitea, Kultura eta Turismo Sailak luzatu dio Euskaltzaindiari, eta bertan, Eusko Jaurlaritza bera, Legebiltzarra, Foru Diputazioak, Euskal Herriko Unibertsitatea, Eusko Ikaskuntza eta Euskal Editoreen Elkartearekin batera partaide izan da. Banaketa horrekin Euskaltzaindiak 50 liburukiz hornitutako 33 argitalpen titulu eraman ditu, hauez gain, bertan *Argitalpen Katalogo* ugari banatu dira. Zerbitzu honen arduradun den Rosa Mari Arza eta Jose Luis Lizundia idazkariordeak ordezkatu dute Euskaltzaindia



Ezkerretatik eskubitara: M. Karmen Garmendia H.P.I.N., J. Haritschelhar euskaltzainburua, Eduardo Laborde herriko Alkatea, J. L. Telleria G.K.F.D. eta Fr. L. Villasante euskaltzaina.

4.4. ITZULPEN ETA KONSULTA ZERBITZUA

1989. urtean zenbait izulpen burutu ditu Euskaltzaindiko Argitarapenen eragileak. Egindako itzulpen behinenak hurrengo erara sailkatu ahal ditugu, hots:

Erakundeak: Gobernu Zentrala (INE), Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Eusko Trenbideak, Gipuzkoako Foru Diputazioa, Bizkaiko Foru Diputazioa, Bilbo Haundiko Uren Partzuergoa/Consortio de Aguas del Gran Bilbao, Bilbo-ko Nazioarteko Erakustazoka/Feria Internacional de Muestras de Bilbao, Bilbo-ko Apezpikutegia, Telefónica, Cadem, Bizkaiko Ingeniarien Kolegio Ofiziala, Osakidetza eta Gipuzkoako Perituen Kolegioa.

Banku eta Aurrezki Kutxak: Banco Bilbao Vizcaya, Banco Atlántico, Banco de Santander, Banco del Comercio, Banco Exterior de España, Lankide Aurrezki Kutxa eta Bizkaiko Aurrezki Kutxa.

Udalak: Bilbo, Iruñea, Gasteiz, Getxo, Santurtzi, Gernika, Barakaldo, Basauri, Laudio, Trapagaran eta Tolosa.

Publizitate enpresak: Estudios Arriaga, Aurman, Publicidad Síntesis, Euro-patent, Gurrutxaga & Etxebarria, Hungria-Patentes.

Beste zenbait enpresa eta partikularrak: Iberduero, Asepeyo, Eroski, Dya, Gurutze Gorria/Cruz Roja, El Corte Inglés, Gráficas Elkar Sociedad Cooperativa, Fotocomposición Rali S. A., Repsol, J. M. Odriozola (Barcelona), Argia Fundazioa (Getxo), Expo'92 (Sibilia), Unicef, Rótulos Roura, C.I.L.E.H. (Barcelona), Gráficas Lerchundi eta Joseba Euba.

Aldi berean Zerbitzu honek, kontsulta modura, hurrengo gaiori erantzuna eman izan die, bai telefonoz eta bai idatziz, Euskaltzaindiaren Egoitzan, alegia: euskal gramatika, hiztegi-gintza, euskara ikasi, landu eta irakasteko metodogintza, bibliografia, alfabetatzerako orientabideak, mailakaturiko irakurketa, euskarazko titulua eskuratzeko orientabide eta bibliografia, udal itzulzaileen zalantzak argitzea, oposaketetarako prestakuntza hizkuntzari dagokiolarik eta abar.

Bestalde, Ordezkaritzei ere eskua bota die, beraietara jo dutenen kontsultak argitu eta orientabideak eskainiz.

4.5. ETSAMINAK

Arlo honetako Batzordea zeharo suntsitua izan denez, orain egiten den lana, euskararen udal zerbitzu edo itzultzaile lanpostuetarako mugatu da gehienbat. Horregatik bulegotik zuzenean eramaten da, amaitu berri den urtean, euskaltzain urgazle hauek ordezkatu dutelarik Akademi erakundea, udal itzultzaile lehiaketetako epaimahaietan:

- Ricardo Badiola, Orozkon.
- Xabier Mendiguren, Deban.
- Patxi Uribarren, Zamudion.
- Ricardo Badiola, Trapagaranen.

Bizkaiko Garraio Partzuergo erakunderako itzultzaile lanposturako, Alfonso Irigoyen euskaltzaina.

Bizkaiko Irakaslego Eskolako epaimahaikide, Juan Luis Goikoetxea.

Hegoaldean ez hainako nortasun arazoa kontutan izanik, Baioan egin dira Euskararen Gaitasun Agirirako (EGA) azterketak. 20 irakaslegai aurkezturik. Berauetatik 17-k lortu dute agiria.

5. Ekonomia

5.1. DIRUZAINITZA

Euskaltzaindian, bi urterik behin ohi denez, iazko Abenduren 30ean kargu berriztatzea egin zen eta Jose Antonio Arana Martija diruzain berria izendatu. Aurtengo Urtarrilaren 19an Bizkaiko Foru Diputazioan kargu hartzea egin zen.

Otsailaren 23 eta 24ean Lazkaon egindako VI. Barne Jardunaldietan Diruzaintzak 1989.urterako Aurrekontu Araua aurkeztu du eta Euskaltzaindiak onartu. Euskaltzaindiak lehendabizi indarrean jartzen duen Aurrekontu Arau honek, urteko Diruegitamuaaren kudeaketa bideratzen du.

Ondorioz, Euskaltzaindiaren bulego ezberdinetan diruerabilera bateratzeko eta kontu emateko, hilabeteko betebeharreko inprimaki berriak egin ditu. Bestalde, ordainketen artean aipatzekoa da, argitalpenetarako eta aginduriko txostenen ordainketarako ere erizpide berriak finkatu direla.

Bidarten Martxoan egindako bilkuran Campion-Broussain Elkarte bereganatzea onartu du Euskaltzaindiak, akzio guztiak erosi eta, Diruzaintzaren proposamenez, Administral Kontseilu berria izendatuz.

Zaharkiturik gelditu diren ordenagailu, fotokopiagailu eta abar ordezkatzeko aparailu berriak erosi dira. Bestalde, gure bulego desberdinen eta kargudunen arteko harremanak arindu eta hobetzeko fax aparailuak ere eskuratu dira.

Urtean zehar *Orotariko Euskal Hiztegi* eta Euskal Herriko Hizkuntz Atlas egitasmoei sortu zaizkien leku beharizenak bideratu behar izan ditu Diruzaintzak.

Euskal Herriko Herri Aginteekin ohizko eta etengabeko harremanez gain, Diruzaintzak, besteak beste, Madrileko Hezkuntza eta Kultura Ministerietekin urteko dirulaguntzak lortzeko zenbait harreman izan ditu.

Aurrekoaz gain, 1978. urtez geroztik "bai euskarari" kanpaina dela eta eten gabe bere dirulaguntza eskaini dioten gizabanakoei eskerrak eman zaizkie eta gure ekintzen agerpena den *Oroit-idazkia* bidali.

5.2. 1989.URTEKO EGOERA BALANTZEA

<u>Sarrerak</u>		<u>Irteerak</u>	
3. Salmenta eta bestelako sarrerak	17.332.863	1. Zuzendaritza eta langile ordainketak	57.008.018
4. Transferentzia arruntak (Herri Aginteak)	168.445.893	2. Funtzionamendu gastuak	44.373.229
5. Interesak	279.072	3. Finantz gastuak	2.031.271
7. Diruegitamu itxiak	2.868.739	4. Transferentzia arruntak (egitasmo eta batzordeak)	74.498.405
8. Finantz aktiboen aldaketak	6.205	6. Benetako inbertsioak	7.172.267
9. Finantz pasiboen aldaketak	-	7. Diruegitamu itxiak	453.599
0. Jasotzekoa:		8. Finantz aktiboen aldaketak	-
0.1. BEZ (Berreskurapena)	2.402.080	9. Finantz pasiboen aldaketak	750.000
		0. Ordainkizun:	
		0.1. Abenduko Gizarte Segurantza	1.094.378
		0.2. Urria-Abendua-PFEZ	3.953.685
Guztira	191.334.852	Guztira	191.334.852

6. Aurkitegia

EGOITZA

BULEGOAK

Elkano, 5-1. - 48011 BILBO
Tel. (94) 4158155
Fax: (94) 4158144
Arduraduna: Jose Luis Lizundia

AZKUE BIBLIOTEKA

Ribera, 6 - 48005 BILBO
Tel. (94) 4152745
Fax: (94) 4150051
Arduraduna: Jose Antonio Arana Martija

GORDAILUA

Bilbo-Donostia errepidea, z/g, 4,5 Km.
Edif. SAGA, 1. solairua
48004 ETXEBARRI (Bizkaia)
Tel. (94) 4406258
Arduraduna: Rosa Mari Arza

ORDEZKARITZAK

ARABA

San Antonio, 41 - 01005 GASTEIZ
Tel. (945) 233648
Fax: (945) 233940
Ordezkarria: Endrike Knörr

GIPUZKOA

Hernani, 16 - 20004 DONOSTIA
Tel. (943) 428050
Fax: (943) 428365
Ordezkarria: Juan Mari Lekuona

NAFARROA

Conde Oliveto, 2-2. - 31002 IRUÑEA
Tel. (948) 223471
Fax: (948) 210713
Ordezkarria: Jose Maria Satrustegi

IPARRALDEA

37 rue Pannecau - 64100 BAIONA
Tel. 07-33-59256426
Ordezkarria: Pierre Charritton



EKIN ET





Memoria
1989

Real Academia de la Lengua Vasca
Euskaltzaindia

INDICE

1. Actividades Generales	79
1.1. Jornadas y sesiones académicas	81
1.2. Diversos acuerdos plenarios	85
1.3. Ponencias de sesiones	87
1.4. Reseña de diversas actividades Académicas y de re- presentación	88
1.5. Organigrama de las Comisiones académicas	95
2. Comisiones de la Sección de Investigación	99
2.1. Comisión de Lexicografía	101
2.2. Comisión de Gramática	106
2.3. Comisión de Dialectología	108
2.4. Comisión de Onomástica	115
2.5. Comisión de Literatura	117
3. Sección tutelar	123
4. Servicios académicos	127
4.1. Administración y delegaciones	129
4.2. Azkue Biblioteka	131
4.3. Publicaciones	134
4.4. Traducciones y consultas	140
4.5. Exámenes	141
5. Economía	143
5.1. Tesorería	145
5.2. Balance de situación 1989	146
6. Directorio	147



1. Actividades Generales

1.1. JORNADAS Y SESIONES ACADÉMICAS

Euskaltzaindia ha celebrado sus sesiones mensuales ordinarias de 1989 del siguiente modo, a saber: las correspondientes a cuatro mensualidades en la Diputación Foral de Guipúzcoa, y en cuanto a las demás, las de febrero, en Lazkao (Guipúzcoa); las de marzo, en Bidart y Bayona (Lapurdi); las de mayo, en Irura y Billabona (Guipúzcoa); las de junio, en Vitoria/Gasteiz; las de julio en Gernika (Bizkaia); las de noviembre en Bilbao; y las de diciembre en Pamplona.

Por otra parte, tanto la Junta de Gobierno como las diversas Comisiones han celebrado numerosas reuniones de trabajo de distinto signo.

Al margen de las sesiones acostumbradas, a lo largo del año ha celebrado varios centenarios y conmemoraciones de diversa índole, organizando Jornadas, sesiones públicas y otros actos que a continuación se reseñan.

— El día 27 de enero se ha celebrado el ingreso del nuevo miembro Ibon Sarasola, en la Casa Consistorial donostiarra. Han intervenido en el acto, el Alcalde de la ciudad, Xabier Albistur; el presidente de la Institución Jean Haritschelhar; el propio Ibon Sarasola, con su discurso sobre el tema "Léxico vasco", y el también numerario Endrike Knörr, a cuyo cargo ha corrido la respuesta y reseña biográfica del académico entrante.

— Los días 24 y 25 de febrero, en el euskaltegi Maizpide que el organismo HABE tiene en la localidad guipuzcoana de Lazkao, se han celebrado las VI Jornadas Internas de Euskaltzaindia. Estas se vienen realizando bianualmente en los diversos territorios a partir de 1979, debatiéndose en ellas temas relativos a su funcionamiento interno, reestructuración y otros, además de renovarse todas las Comisiones. A las ya existentes se ha añadido la nueva Comisión Jurídica con carácter consultivo. Como colofón de estas Jornadas, Euskaltzaindia ha acudido a la localidad vecina de Ataun, con el objeto de homenajear a su miembro de número José Miguel Barandiarán en el centenario de su nacimiento.

— El 1 de abril, y como continuación de las dos sesiones celebradas la víspera en la cercana localidad labortana de Bidart, una, correspondiente a la ordinaria mensual y la otra, de la Comisión de Publicaciones, ha tenido lugar el ingreso en la Academia del nuevo miembro de número Txomin Peillen, en la Casa Consistorial de Bayona. Tras los saludos de rigor del Alcalde de la ciudad, Henri Grenet, y del presidente de Euskaltzaindia, Jean Haritschelhar, el señor Peillen ha leído su discurso de ingreso sobre el tema "El ambiente entre

los escritores vascos hace cuarenta años". La contestación reglamentaria ha corrido a cargo del numerario Alfonso Irigoyen.

— Los días 25, 26 y 27 de mayo, y con motivo del segundo centenario del escritor Juan Antonio Ubillos, han tenido lugar diversos actos, a saber: el primer día, la sesión mensual ordinaria en el Hotel Laskibar de Irura, y los siguientes, las I Jornadas de Literatura Popular, con la temática general de poesía narrativa, en la Casa de Cultura de Billabona. De éstas se da cumplida cuenta en otro capítulo. Como clausura, el sábado día 27 a la tarde, se han



De izquierda a derecha: M. Carmen Garmendia Secretaria General de Política Lingüística del Gobierno Vasco, Jean Haritschelhar Presidente de Euskaltzaindia / R.A.L.V., Eduardo Laborde, Alcalde de Billabona y José Luis Tellería Diputado Foral del Departamento de Cultura de Guipúzcoa.

celebrado dos actos, el primero, en el caserío Galatas, solar natal de Ubillos, la colocación de la lápida conmemorativa, y en la Casa de Cultura, la sesión pública del homenaje al escritor. En ésta, tras las palabras de saludo e introductorias de Eduardo Laborde, Alcalde de la villa, y Jean Haritschelhar, presidente, se han producido las siguientes intervenciones: la del historiador Carmelo Iturria, "Biografía de Juan Antonio Ubillos"; la de Luis Villasante, "Algunas particularidades de la obra de Ubillos *Christau doctriñ berri-ecarlea*", y la de Patxi Altuna, "Razones de una edición crítica".

— El 23 de junio, y como continuación de las reuniones celebradas la víspera, tanto de la Comisión de Onomástica, como de los responsables de todas las comisiones, en la Delegación alavesa, han tenido lugar otras dos en la Casa Consistorial de Vitoria/Gasteiz. La primera, correspondiente a la ordinaria mensual de los académicos de número y la segunda, de carácter público, en homenaje del miembro de honor Gerardo López de Guereñu y como presentación de la recopilación de sus trabajos onomásticos, en el monumental volumen *Toponimia alavesa seguido de Mortuorios o despoblados y Pueblos alaveses*. Intervinieron en este último acto, el Alcalde de la capital, José Angel Cuerda, y el presidente de la Academia, a quienes les siguió Endrike Knörr, delegado en Alava y presidente de la Comisión de Onomástica, con unas palabras sobre la vida y obra del señor López de Guereñu, quien al final agradeció en breves palabras la distinción de la que era objeto.







De izquierda a derecha: E. Knörr académico, J. Haritschelhar presidente de Euskaltzaindia / R.A.L.V., Gerardo López de Guereñu miembro de honor de Euskaltzaindia / R.A.L.V. y J. A. Cuerda Alcalde de Vitoria / Gasteiz.

— El 28 de julio, y tras la primera reunión de la nueva Comisión Jurídica celebrada la víspera, han tenido lugar dos sesiones en Gernika, a la mañana, la sesión ordinaria mensual, en el Ayuntamiento y a la tarde, en el palacio Alegría, muy cerca de la Casa de Juntas y del Árbol de Gernika, el acto de ingreso del académico numerario José Antonio Arana Martija. Juan Luis Zuzae-ta, Alcalde de Gernika-Lumo, y Jean Haritschelhar, presidente académico, han intervenido en primer lugar, para que a continuación, el señor Arana Martija

leyera su discurso sobre el tema "Una aproximación a la historia de los asientos académicos de Euskaltzaindia". La respuesta ha corrido a cargo del ex-presidente Luis Villasante. La clausura del acto la ha efectuado el Diputado Foral de Cultura, Tomás Uribeetxebarria.

— El 24 de noviembre, la sede matriz del Banco de Bilbao ha sido el escenario de tres actos académicos. El primero, correspondiente a la sesión mensual de los académicos numerarios. El segundo, para efectuar la presentación de los cuatro tomos reeditados de la obra *Euskalerriaren Yakintza* de Resurrección María de Azkue, con la participación de: Jean Haritschelhar, presidente; José Luis Lechosa, Director General de la Editorial Espasa-Calpe; Francisco Pérez Garzón, responsable de Relaciones Públicas del Banco Bilbao-Vizcaya; y José María Satrustegui, secretario de Euskaltzaindia. El tercero, una



sesión pública organizada en homenaje a dos vascófilos vizcaínos, en conmemoración del centenario del fallecimiento de Antonio de Trueba, con una ponencia de José Antonio Arana Martija, con el título "Antonio de Trueba y la lengua vasca" y, recordando al jesuita P. Estefanía, sobre quien Patxi Altuna leyó un documentado trabajo titulado "José María Estefanía Zabala 1889-1942. Guía de varios poetas vascos de la época, como Orixe, Lauaxeta y otros".

Los días 28 y 29 de diciembre, Euskaltzaindia se ha trasladado a la capital navarra, con ocasión, sobre todo, del centenario de la muerte de uno de sus primeros académicos, José Aguerre. En la primera jornada se han reunido la Junta de Gobierno y la Sección Tutelar en la Delegación académica. En la segunda, tras la sesión mensual, también en la misma Delegación, ha tenido lugar el acto público en el palacio del Gobierno de Navarra, con las intervenciones siguientes: de Aladino Colín, Consejero de Presidencia del ejecutivo navarro, tanto en la apertura como en la clausura; la de Jean Haritschelhar, con unas breves palabras como presidente; del académico de número Patxi Zabaleta, con su discurso "Influencia de José Aguerre en el mundo vascófilo de Navarra"; de Conchita Ochoa, que leyó un trabajo inédito de su fallecido esposo Miguel Javier Urmeneta, titulado "Aguerre y el vascuence" y del académico numerario y secretario José María Satrustegui, con su discurso "En homenaje a Miguel Javier Urmeneta".

1.2. DIVERSOS ACUERDOS PLENARIOS

En el transcurso del año 1989 se han tomado acuerdos en los plenos mensuales de los académicos de número, que al haber ido directamente al pleno, sin pasar por la Comisión correspondientes, no aparecen en el capítulo segundo de la Memoria. Enumeramos los más destacables:

— En las sesiones de enero y marzo, se han examinado, debatido y aprobado los dos vocabularios de lápidas y crucíferas.

— En las de marzo y abril, se han debatido y aprobado las normas de protocolo de Euskaltzaindia, así como la nomenclatura académica.


— Asimismo, en el pleno académico de abril, se ha acordado mostrar la adhesión de Euskaltzaindia para la puesta en marcha de Radio Euskalerría en Pamplona.

— En la de mayo, y a petición del Ayuntamiento de Amurrio, se han aprobado el nomenclátor y la terminología de las Juntas Administrativas de dicho término municipal.

— El mismo mes, se ha acordado participar en las Jornadas sobre terminología de la Administración Pública, organizadas por la Secretaría

